


Berriro eta behin

Euskara dela eta
Txillardegi gogoan





Joxe Austin Arrieta Ugartetxea | (Donostia, 1949). Banka-enplegatu eta itzultzailea, lanbidez. Poesia, narrazioa eta itzulpengintza jorratu ditu. Lan hauek argitaratu ditu, besteak beste: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (GAK, 1979), *Manu militari* (Elkar, 1987) eta *Terra Sigillata* (Txalaparta, 2008), eleberriak; *Bertso-paper printzatuak* (Elkar, 1985), *Mintzoen mintzak* (Elkar, 1989) eta *Graffiti ganbara* (Kutxa, 1995), poemarioak; eta literatura unibertsaleko eleberri ospetsu hauen itzulpenak: Marguerite Yourcenaren *Hadrianoaren oroitzapenak* (Elkar, 1985), William Goldingen *Eulien Ugazaba* (Elkar, 1990), Max Frischen *Homo Faber* (Elkar, 2001) eta Marcel Prousten *Denbora galduaren bila-Swann-enetik*.

Joxe Austin Arrieta

Berriro
eta behin
Euskara dela eta
Txillardegi gogoan

Hitzaurrea
Joxe Azurmendi



Hirugarren orriko argazkia
Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, NAS-103979.
Txillardegi hizlari Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean,
Bergarako Erret Mintegian (1978/09/05).
Ezkerretik eskuinera: Koldo Mitxelena, Luis Villasante,
Txillardegi eta Juan Antonio Letamendia

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2013ko azaroa

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Joxe Austin Arrietak OBRARENA

Editorial Txalaparta e.m.f.
San Isidro 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

ISBN
978-84-15313-69-4
LEGE GORDAILUA
NA.1859-2013

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

txalaparta 

HITZAURREA

EZ, BERA ILUSTRATUA DA. Ez ditu holako sineskeriak sinesten, hizkuntzak pentsaera determinatzen omen duelakoa-eta. Abertzaleen superstitzioak. Beti horretan dihardute horiek, Euskadiren eta euskararen inguruan ipuin irrazional, mito historiko eta joera ideologikoen sare ilun sentimentalak ehuntzen. Bera ez dago holako sineskeria ganoragabeak sinesteko. Razionala izan behar da ooren aurretik.

xx. mendeko 60ko hamarkadan ekinda euskalgintzak zer ekarri duen azaltzen hasi behar badugu, beharbada uste hori nabarmenduz has gaitzke: hizkuntzak mundu-ikuskerata adierazten duela. Euskara ez da hiztegi bat eta gramatika bat. Euskara mundu-ikuskerata da. Unibertso bat. Euskaldunon mundu-ikuskerata, euskaldunon unibertsoa.

Ez da izan euskalgintzako bultzada bakarrik. Nazio bat lehen-lehenbizi hizkuntzata dela,

hizkuntzak nazioaren mundu ikuskera biltzen duela, abertzaletasun berriaren ideia ardatzeta-koa izan da: gure aberria euskara da. Euskara da Euskal Herriaren «arima», espiritua.

Egia aitortzeko, ez da ideia berri-berria abertzaletasunean. Kanpion eta Arana Goirirengan irakurtzen duzu jada. Baina orain gerraostea da. Erakunde politiko eta sindikalak ezabatuak daude. Haurrek eskolan *Cara al sol* abesten dute. Etxean, etxe barruraino sartuak dira irrati eta telebista espainolak. Euskara inoiz baino arrisku larriagoan dago betiko galtzeko. Inoiz baino larriagoa da haren garrantzia nabarmentzea.

Garrazki samar ere egin da batzuetan. Agirre Lehendakaria hil eta kargurako Leizaola izendatu denean, Federico Krutwigek «es un agente de la opresión, un enemigo de la patria vasca» protestatu du, bai bera eta bai emaztea euskaldunak izan arren hurrei euskara irakatsi ez dietelako, «convirtiendo a sus hijos en ‘maketos’» (ohar bedi, ‘maketo’ hemen ere hizkuntzari erreferitzen zaiola, ez arrazari). «No tiene derecho a llamarse ni vasco ni patriota». Krutwigen salaketak EAJ-PNV Alderdia ere harrapatzen du: «Cuantos alzaron, ayudan y mantienen en el poder a un tal hombre son cómplices de alta traición».

Euskararen garrantzia nazionala dela, euskararen nolakoa dela (garbia, mordoiloa), batasuna dela, hainbat polemika piztu da. Abertzaletasun

zaharraren eta berriaren arteko haserreak hein batean.

Testuinguru honetan joan da indar hartuz hizkuntzak pentsamendua taxutzen duelako tesia. (Koldo Mitxelenari ez zitzaion gustatzen; gaizki ulertzen zuelako, nik uste). Pentsamendua, gartzen denean, pausoz pausoko ibilbide bat ibiltzen da («etxea-1-mendian-2-dago-3»); bide hori, eta bideko urratsak oro, hizkuntzak emanak ditu. «El lenguaje, por su construcción, presupone un tipo de conducción del pensamiento», idatzi du Krutwigek *Vasconian*. Ez zen baiespen teoriko ilargitarren bat, filosofo eta linguisten eztabaidetarako interesatea. Krutwig irakurtzen bada, ikusiko da, etnia edo nazioarentzat hizkuntzaren modu askotako garrantzia azpimarratzen ari dela: soziologikoa, psikologikoa, historikoa. «El lenguaje es como un fiel espejo en el que se reflejan las condiciones sociales de un pueblo a lo largo de su historia». Garrantzi filosofiko eta kulturala: herri baten mundu-ikuskerarena. Garrantzi politikoa ere bai inperialismo espainolaren buruz buru: independentzia nazionalaren eta burujabetasun indibidualaren marka eta tresna gisa, «el euskara era el símbolo de la autonomía y fraternidad libertaria».

Laburbilki: nazio arazoan garrantzizkoa hizkuntza da. Ez arraza edo zazpi deitura jatorrak eta beste folkloreak. Euskaldunon nortasun kul-

turala, espirituala, hots, geure mundu-ikuskerak, euskarak gordetzen du eta eratzen du. «El idioma encierra en sus estructuras la forma de concebir el mundo del pueblo que lo habla».

Gai honetan txapeldun –beste askotan legez– Txillardegi izan dugu. Hainbat artikulu argitara du eta 1972an *Hizkuntza eta pentsakera* liburuxoa. «Hizkuntza da herri baten arima», eragoten zuen. «Zerk egin du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izakera berezia? Zerk egin du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk berez-ten gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? Euskarak ez bestek». Heriotzaren angustiaz eta angustiatik eginak dira aldarri hauek. «Euskara hilko balitz, Euskal Herriak bere izakera berezia, bere jitea, bere jatortasuna, bere nortasuna, bere euskaltasuna, bere nazio-arima osoa hitz batez, galduko luke».

Diferentzia bat dago: Krutwigek Herder eta Humboldtten tradizio aleman klasikoan argudiatzen zuen. Batzuei agian esajerazio «alemana» begitantzen zitzaien, baina –EAJko sektoreren batetik kanpora bederen– zer arranguratu handirik ez zuen ematen. Gazte progreei are gutxiago. Ez al zen Sieyès Humboldtten solaskide eta laguna izan, Renan Herderren ikasle eta mireslerik minena?, «nazioaren kontzeptu zibiko» famatuaren bi maisu gurenak aipatzeko (gaur ba ote dakite hori nazio zibikoaren hemengo

apostoluek?). Gainera, Krutwigek teoria hori marxismoarekin ere ahokatzen zuen bere modura. Txillardegik, ordea, estrukturalismoarekin argudiatzen zuen. Eta gertatzen zen Frantzian estrukturalismoa eta marxismoa katua eta zakurra bezala zebiltzala. Progresiaren monopolioa marxistek zeukatenez (hobe esan, PCFk eta lagun intelektualek), estrukturalistak erreakzionario hutsak eta burgesak ziren; eta estrukturalistek metodo razional estriktoaren eta zientzia berriaren monopolioa zuten, marxistak dogmatiko eta sektario hutsak ziren. Euskal Herrian orobat, ETAN bezala inguruetan, marxistak eta ez marxistak makilka zebiltzan denak denen aurka. Txillardegi ez zen berehala okiltzen direnetakoa. Egurra hartzen bezala zekien ematen. Horrela, hizkuntzak pentsamendua baldintzatzen duelako tesi berez inofentsiboa, *casus belli* baten antzera tratatu da gure artean.

Seguru garai hartan iraultzaile terribleak izan zirela; orain jende zuhur eta ilustratua dira, gure beheko mundu honi ongiaren eta gaizkiaren gaineratik so. Baina handik gelditu da, oraindik ere ezin sinestea hizkuntzaren eta pentsamenduaren loturaren ideia hori (ideiak ere batzuentzat sinesteko edo ez sinestekoak izaten baitira). Susmoa dut ezagutu ere asko ez dutela ezagutzen apika. Behintzat, tesi haren aldeleei beraiek suposatzen dizkieten aburuak, neuk ez

ditut inon aurkitu euren lumetan baino. Haatik garbi daukate tesi hori abertzalea dela. XIX. mendekoa, erromantikoa eta irrazionala. Teoria zahar aspaldi gainditua.

Zaharra eta zaharkitua benetan, pentsamendua eta hizkuntza bi erresuma zeinberetan banatzea da. Pentsamendua hizkuntzatik erabat aparte suposatzea. Aristotelesek hori uste zuen: gogamenaren ideiak daude alde batetik, haiek adierazteko tresna fisikoak bestetik, ahotsak. Arrazoimena eta ideiak gizadiaren komunak dira, hizkuntzak herri bakoitzaren partikularrak. Herri eta ahots-hizkuntzen anabasa alde batera lagata, Aristotelesek ideien erresuma isil unibertsal eta bakar hori analizatu zuen Logikan eta Metafisikan. Ideien ordenan hierarkia bat dagoela aurkitu zuen, pentsamenduaren sistema determinatzen duena. Eta sistema guztiaren oinarri-oinarrian, berak kategoriak deitu zituen ideiak zeudela (bere analisis grekoz egin zuen, noski). Descartesek innatoak deitu zituen berak ideia guztien hastapenekoak suposatu zituen ideia bakunak. Kantek beste hainbeste bilatu zuen Logika Transzendentaleko Kategorien Taularekin. Pentsamenduari eusten dion azkeneko funtsaren bila beti, hizkuntza ezberdinen axolarik gabe. Herder konturatu da kategoria oinarrizkoenak ere ezin direla pentsatu eta esan hizkuntzaren batean ez bada. Humboldt

intuizio hori sistematikoki ikertzeari ekin dio. Wittgensteinekin-eta, filosofian «biraketa linguistikoa» etorri da. Estrukturalismoa eta Chomsky heldu dira gero Linguistikan eta Antropologian (Chomskyk bere aitzindaritzat Humboldt aipatzen du). Stalinek berak ez al zuen, bada, hizkuntza gainegitura ziztrina deklaratu egotetik bere autoritate guztiarekin erredimitu? Abertzaleen zorte ona baizik ez da izan, bigarren modernitateko prozesu hau dena eurei gehiago gustatu bazaie kosmopolita razional eta ilustratu antiabertzale zenbaiti baino.

Nik esango nuke, gerraosteko belaunaldiak euskaltasunaren definizioan eta autokontzientzian zerbait erlatiboki berririk ekarri badu, horixe izan dela: «Herri baten izakera eta bere hizkuntza elkarri josirik, loturik eta iratxekirik daude errotik», Txillardegirekin esateko (gizakia abere razionala da, definitzen denean ere, hiztuna da –logos–, ulertu behar da: arrazoitu hizkuntzarekin egiten da). Euskal Herria ez da euskara bakarrik, baina lehen-lehenbizi euskara da. Kontzientzia hori ez zen berria. Gerraostean, alabaina, erresistentzia politikoaren trabengatik ere, efikazago agertzeko *chance* berri bat izan du, eta ikastolen mugimendua, euskararen batasuna eta normalizazioa, euskalduntze eta alfabetatze kanpainak, literaturaren birloratzea, kanta berria, etab., uhin handia altxarazi du hizkun-

tzaren alde. Filosofiak bezala zientziak, kultura orokorrak –kasi moda bat zen–, denak hizkuntzaren gorazarrea eta abaroa errazten zuen, intelektualki esan nahi dut.

Wittgenstein gora ala Chomsky behera, gure eszeptikoak eszeptiko jarraitzen du. Bere hautua «ilustratua» da, diskurtso hau dena ez da bere hautu basikoarekin uztartzen. Goizero-goizero Madrilgo egunkari ilustratua estudiantzen du (prentsa probintzianoa orrikatzen du noizean behin). Han ikasten dizu mundu handian orain-txe zein den pentsamendu modernoena, autore modernoena, liburu modernoena. Hor arnasten dizu mito erromantiko irrazionalez kargaturiko Euskadi honetan ez itotzeko behar duen oxigenoa. Goizero-goizero esperimentatzen du: mundu-ikuskeraren egiazko organoa egunkaria da, hizkuntzak ez dio axola. Aitzitik, euskara maite du, baina euskaraz irakurtzen duen gehiena, berea baino gehiago bestelako mundu-ikuskerakoa sentitzen du (mundu-ikuskerakoa eta ideologia konfunditzen segitzen du betiere).

Okerrena da eszeptikoak arrazoi izan deza-keela, berak pentsatzen ez duen modu batean. Hizkuntzak pentsamendua taxutzea ez da mekanikoa. Doktrina hori aldeztu dutenak ez dira magiazaletak, gure eszeptikoak dirudienez horrela ulertzen baditu ere (bera bai, pentsamendu magikoan baratua baitago, bere betiraunean

autoritate eta mantra fetitxeen debozioan aski nabari ohi duenez). Euskara izan daiteke gure ama hizkuntza, ordea egunero Madrilgo prentsa, telebista, irratiak segitzen baditugu, erdaraz irakurtzen badugu eta erdaraz bizi bagara, eta azken finean euskaraz mintzo garena oharkabeki erdaratik itzuli egiten badugu, etab., h. d., gure elebitasunaren forma euskararen mendekotasun totalarena baldin bada, eta jakin dezakegu euskara oso-oso ongi, gure pentsamendua taxutzen ari dena ez da euskara, erdara baino.

Orain urte batzuk diglosia erruz aipatzen zen. Dudarik gabe, geroz eta gehiago ari zaigu gertatzen; geure euskarazko mundua (eta ikuskera) barrutik husten ari zaigu, erdarazkoaz betetzen. Gerraosteko belaunaldiak euskara zigortua eduki zuen. Askok erabat galdu zuen (lotsaz, oportunitate moz). Geroago euskara berrikasi dugunok ere: erdaraz eskolatu, etxeko euskara galdu, eskura zegoen liburu gutxietakoa lardatsikasi, zer euskara da gurea? Aurkezpen bat egiten dizute: «Hona hemen Sandia», eta «Pozten naiz» erantzuten dugu erdarazko euskaraz. «Urte askoan», erantzuten dute Zegaman. Urtebetetzean inor «Urte askotako!» esaka zoriondu, «eta zu ikusteko» elegantearekin erantzuten dizute. Zertxobait jatera edo edatera gonbitatzen duzu, eta ezezkoa eman ez batera eskertzeko: «Janda bezalaxe estimatzen dizut, baina...» («oraintxe etxera joan

beharra daukat», edo abar). Adibide pare bat besterik ez da. Zaharrak eta ohean gaixoak nola diosaldu, nola erantzun, ezkonberriak nola festatu, dolua nola adierazi hainbat zirkunstantzietan: alegia, harreman sozialeko formak, euskarazko jendetasuna, galtzen ari gara. Harremanen mundua geure eran antolatzeko modua da hori, ordea, hika, zuka edo berorikako tratua bezalaxe. Mundu-ikuskeraren sozialaren zatitxo bat.

Nola esan ez dakigu, eta ez daukagu kalkoak asmatu beste erremediorik. Mila gauza txikitan erreparatzen da hori –irratian, telebistan, literaturan–. Gairik arruntenetan. Zer esanik ez gai pixka bat konplikatuagoetan («*mea culpa, mea maxima culpa!*»).

Horregatik «euskaraz bizi» sloganaren garrantzia: gure munduan bizi. Gure mundua berregin eta ostera edukiz bete. Esaera naturalekin bete, kanta, agirakakoekin bezala pena eta laztantasun espresioekin bete. Gure esperientziaren geure gogoetarekin. Gure literatura eta poesiarekin. Geure memoria eta historia eta «mitoekin». Eta, hasteko, hori dena zinez euskaraz bizi den jendearengandik ikasi –«*du côté de chez Arroxa*»–, ikasi eta ikasi.

Egunoro euskaraz bizi den jendearekin nahikoa da ordu batzuk solastea, zure errepertorioan ez dauden gauza berriak atzematen dituzu beti. Hitzak ere bai (gero hiztegian ez datozenak),

baina esamoldeak batez ere. Zuk sekula egingo ez zenituzkeen fraseak. Ezer berezirik ez, nahi baduzu. Edozer gauza modu simple naturalean esateko moldeak. Sentimentu zailak ere naturalki adierazteko moldeak.

Euskararen naturaltasuna euskalkietan dago, jakina. Baina Joxe Austin Arrietak arrazoiz enfatizatzen duen bezala, ez dago euskalkietan euskalkiak diren bezainbatean, ahozkoak diren hainbatean baizik. Euskalkiek euren lekua dute, esentzialak dira euskararentzat, ahozkoa esentziala denez gero hizkuntza biziarentzat. Euskara batua ezin da izan beste latin bat. Baina hizkuntzak erregistroak eta espazioak dauzka. Lagunartean barregarria da erregistro akademikoa. Espazio publiko erkidean euskalkia ezlekuan dago: euskara nazionala eta euskara auzotarra bereizten ez jakitea da. Are naturaltasunaren aitzakian irratian eta telebistan goierritakeriak barra-barra sartzen badira (ez dakit zein Goierritakoak gehienetan: ni Goierrikoa naiz), edo bizkaiera ez den txokokeria bizkaitarrak («gu'su» = gura dozu; «in'bi'da» = egin behar da), bizkaiera literario bat ere badagoela ahaztuz, eta zerikusirik ez daukala horrekin. Naturaltasuna eta arlotekeria nahastea da.

Bai, zerbait berririk egon bada gerraosteko belaunaldiaren kontzientzia abertzale eta euskaltzalean, hori izan dela esango nuke: nazioa

lehen-lehenik hizkuntza delako uste sendoa, eta hizkuntza bat mundu-ikuskerak bat dela. Tribuak atzera utzi, eta nazio izaten ahalegindu gura izan dugu. Hizkuntza nazional bat batzen, nazio batua izateko. Mundu-ikuskerak galdu edo apurtua berreskuratzen, berria eraikitzen: euskararen unibertsoa. Konbentziturik munduak guri eta guk munduari egin ahal diogun oparirik ederrena horixe dela.

JOXE AZURMENDI

Dorraoren inguruan, berriro eta behin¹

1.- 2012ko urriaren 24an Eskoriatzako HUIHEZI Fakultatean emandako hitzaldiaren bertsio idatzia, *zuzendu eta emendatua*.

ARRATSALDE ON:

Pribilegio handia da niretzat hemen, Aitzorrotz-*Hitz Zorrotz* honetan, Nafarroako Erresuma Zaharreko «Markina» eskualdeko hiriburu honetan, mintzatu ahal izatea. Zeren, besteak beste, horra bada: ama markinarra nuen. Ez naiz «Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Markinako Karmen Ortozeko Predikadoria», baina bai Markina-Xe-meingo Arroxa Goitikoren semie, eta zilegi bekit, beraz, neuri ere, neure oldezko «Euskal-Errijetako Olgeeta ta Dantzeen neurrizko-gatz-ozpinduba» zuen aurrean aurkeztea. Halakoxea izango baita gehienbat: gatz-ozpinduba, entsaladea, alegia. Nire entsalada honetan zein maneagai, zein ongailu edo gozagarri nagusituko zaidan ez dakit. Agian, zenbaitetan, Hannibal Lecter-en *auto-kannibalismoaren* kutsua antzemango diozue (eta

auto- diot, ez baitut zuen burua jateko inolako asmorik; neurearekin ere nahikoa lan). Baina gehienetan, nik uste, harako Hodei Beltz (e)txe(a) iene saiatuaren baina inozo samarraren ahalegin temati bezain antzu antzean ari naizela irudituko zaizue; horixe inozoa, pentsa: beti «aurpegi zurbilen» karabanaren inguruan jirabiraka, buelta eta buelta, erdigunera braust, zuzenean, salto egin beharrean. Beraz, abisatuta zaudete: gatz-ozpinduba, *tour-mix* jirabirakarian irabiatutako maionesagaz.

I.-Lehen inguraketa («Nondik»)

I.1. «GOGOETA IRAGAN HURBILAZ: IRAKASPENAK». Halaxe deritza Hitz-Zorrotzeko lagunok proposatzen diguzuen gai orokorrari. Garbi mintza gaitezen eskatzen diguzue, ondo zer egin dugun, eta gaizki zer egin dugun zehaztuz. Ez da lan makala. Izuzko lehen zarradari gaina hartzen samurra ere ez. Baina lortuko dudala uste dut. Aldez edo moldez. Eta zuen aditasun adeitsua lagun betiere, noski.

«Kulturgintzan azken hamarkadetan sortzailiek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belaunaldi berri bati ezagutaraztea», halaxe definitzen duzue helburua, eta

honela laburbiltzen aurreraxeago: «Gure kultur-gintza modernoaren protagonistek –aditu eta aritu– bildutako esperientziaren transmisioa».

Ederra helburua, inon ederrik bada. Nahiz eta argi ibili gero: nire adineko bati esperientzien transmisioa eskatzen badiozue, zuen errukarri, *batallitak* kontatzen hasten bagara, akabo... Baina ez. Hori baino alkantzu handiagoko egin-kizuna da berez, txisteak txiste (beharrezkoak hauek ere, tarteka, izuak «vudufikatzeko»).

Oinarrizko objekzio bat daukat, ordea. Zer naiz ni? «Aditua»? Ez, ez naiz soziolinguista, ez soziologoa, ez filosofoa, ez ezertan ere katedraduna. Idazle itzultzaile bat naiz. Edo itzultzaile idazle bat. «Aritua»? Bai, aritua bai. Bizi guztian ibilia naiz euskararen inguruan jirabiraka. Baina zer esan diezazueket nik dagoeneko ez dakizuenik nork zeuen esperientziatik?... Edo «arditua» ote naiz, Koldo Izagirrek darabilen hitz *azeria* mailegatuz? Ez, ez dut uste. «Ahartua», orduan? Bai, denok bezalatsu: ahari-talkan, ahari-topekan ni ere makina bat aldiz jarduna, neure buruarekin aurrena eta besteenarekin hurrena. Edo «akitua» ote? Bai, hori ere bai, ez beti, baina bai sarri, akitua, gure elkar-konponezin estrukturalak, endemikoak, gure hizkuntza-ren eta gure herriaren burua altxa-ezinak akitua.

Akidura gainditu beharra dago halere. Eta ardikeria-aharikeriak ere bai. Desadostasunak

desadostasun, aurrera egin beharra dago. Ez onkeriazko desideratum belaxkaren batengatik. Premiagatik baizik. Biziraupenagatik. Behin eta berriro itzuliko naiz ideia simple baina guztiz funtsezko honetara, nik uste. Gure ahari-topekatik harantz, zeozer asmatu beharrean gaudela, alegia, bestela jai dugula....

1.2. Ez dakit nola erantzun, dena den, oraingoz, bidali didazuen galdera-zaparradari... Hona hemen, enkriptaturik, zuen galdetegia:

«1.-Zer eman du euskal kulturgintzak XX. mendeko 60ko hamarkadatik gaur egunera arte? Zer ikasi behar dugu datozen hamarkadei begira?

-Urteen joan-etorrian euskal kulturgintzari dagokion definizioan zerbait aldatu al da?

-Zer zen eta zer da "euskal" kulturgintza delakoa? Zertaz hitz egingo diguzu euskal kulturgintzaz ari zarenean?

2.- Euskal kulturgintza 1960-80 bitartean.

-Zertan zen euskal kulturgintza frankismopeko azken aldian? Garai hartan abiarazitakoetatik (sortzaileak, hedatzaileak, antolatzaileak...) zertzuk azpimarratu nahi dizkiguzu? Zergatik horiek?

-Euskara batuak zer ekarri zion kulturgintzari? Belaunaldien arteko harremanak zein nola/zer-nola joan ziren garai hartan? Noren artean sortzen ziren aliantzak? Nola egituratzen ziren?

3.- Franco hil ondorengo instituzionalizazio berria:

-Zer ekarri zuen EAEN eta Nafarroan instituzionalizatze-prozesuak?

Instituzionalizazioaren ondorioez zer iritzi daukazu? Zertan izan zen mesedegarri euskal kulturgintzarentzat? Ondorio kaltegarrik?

-Zertan izan dira indarguneak eta zertan ahuleziak azken 30 urteotan? Zein nola/Zer-nola uztartu dira dinamika instituzionala eta euskal kulturgintzaren baitako gizarte mugimendua (elkarte, enpresa, etab)? Ziklorik-edo bereiziko zenuke? Zeren araberakoak?

-Transbertsalizazio politikoak (abertzale vs ez-abertzale; abertzaletasunaren baitako fragmentazioa) zer eratako ondorioak ekarri dizkigu euskaldu-noi azken hamarkadotan? Hamarkadak aurrera egin ahala, transbertsalizazio horiek indartzen edota ahultzen joan(go) dira?

-Aurrera begira non ikusten dituzu indarguneak eta ahuleziak euskal kulturgintzaren baitan? XXI. mendeko gizartean non ikusten dituzu aukerak eta mehatxuak?».

Ez, ez dakit nondik heldu galdera sakon horiei. Sakonegiak baitira, trinkoegiak. Nire «Hodei Beltz» (e)txe(a)ienearen geziek –baita suzkoak balira ere– ezin diete eraginkorki aurre egin hain ongi lerrokaturiko eta biribilduriko karabana horren barruan zelatan dauden *winchester* ahaltsuei. Zerbait esan nezake, noski; adibidez: ezetz, funtsean ez dela ezer aldatu euskal kultur-

gintzaren definizioari dagokionez. Betiko dikotomiak indarrean dirauela, euskal kultura hemen egiten den guztiari deitzen diotela batzuek, eta besteok ez. Euskaraz sortzen den kultura dela, niretzat, euskal kulturgintza. Baina hori *nihil novum sub sole* besterik ez da, eguzkipean deus berririk ez. Maionesari eragin eta eragin jardungo nuke, azkenean zera, duela gutxienez hogeita hamabost bat urte hemengo idazle erdaldun bati esan niona errepikatzeke baino ez: «*Tú eres un escritor vasco, claro que sí. Yo no. Yo no soy un escritor vasco. Yo soy un euskal idazle. Que no es lo mismo*». Eta azpimarratu? Ez dakit zer den azpimarratu beharra eta zer ez. Beharbada, dena. Ala ezer ez... Izan ere, errespetu falta galanta ez balitz, neure buruari txoritara joaten utzi eta zuen aurrean Brecht-Laboa kantatzen hasteko ere kapaz nintzateke: «Denak ala inor ez, dena ala ezer ez». «Aliantzak» diozue, bestalde? «Aliantzak»? Zer da hori? Herri honetan gauza izan al gara inoiz, gero, ezeren inguruan aliantzak egiteko? Banderizoak izan gara beti. Eta kainismoa lege. Izan eta izango? Ez dakit... Espero dut ezetz.

Lasai nadin, ordea. Ez da horrelako asaskapenatarako tenore. Ez nauzue horretarako gonbidatu, inola ere. *Planctus* gehiegi egin ohi ditugu –edo egin ohi ditut–, poetikoki dotore direlakoan –eta halaxe dira, pose hutsa ez direnean–. Baina poesia ez da aski. Gaur, uste dut,

politikoki mintza nadin ekarri nauzue hona. Eta mintzatuko naiz. Poesia autoaren bateria da. Eta bateriarik gabe, autoa ezin abiaraz daiteke –poetikoki esanda–, edo kotxeak ez du arrankatzen, gure eguneroko di-daneko hizkuntza pragmatikoan esanda. Baina kotxeak nahiz autoak motor osoa behar du ibiltzeko, eta transmisioa, eta gurpilak, eta zuzendaritza, eta txasisa, eta gasolina ere bai, erruz. Baita «junta-kulata» eta «trokolak» ondo edukitzea ere, Alkainen mekaniko jator askoak esango lukeen legez.

Galdera hauen inguruan, ados nago, oro har, Mikel Peruarenak «Beste olatu bat» izeneko artikuluan dioenarekin (ikus in *Berria*, 12/06/08):

«Urteak badoaz, eta gero eta argiagoa da berreuskalduntze estrategiek behea jo dutela. 1960-70eko olatuak ekarri zituen kultur pizkundea, euskararen estandarizazioa, alfabetatzea, ikastolak. (...) Mendeetan atzera egina zuen euskarak, lurraldearen gehienez galdua zen; 1960ko olatu hark lortu du malda beherako tendentziari apur bat eustea. Eustea, ezen ez joera irauli eta gorantz jartzea».

Ados, beraz, bai. Baina ez naiz fido neure adostasunaz. Metaforak lagungarriak izan daitezke; ni neu ere metafora-zale porrokatua naiz. Baina kontuz. Hemen jokoan dagoena ez da Mundakako Ezkerra edo Bidarteko Belharra.

Hau ez da surf kontua. Hemen aspaldi urperatu gintuen tsunamiak. Gure hizkuntzak mendeak daramatza «gibelilat so egin eta hasperena ardüra». Estu-larritzen gara, edo kontsolatzen, aldikal, txandaka, aldar-tearen arabera, beti bat eta bera den protokolo liturgiko beti-berdin batez. Zazpi probintziotan bizi garen jendearen lautik batek dakigula oraindik, edo lautik hiruk ez dakitela jadanik. Horiek ohi dira gure lanturuak, aburuak nahiz zizpuruak. Baita –baikortasun-une gorenetan– gure helburuak ere, deliberatuki deliberatuak: oro-genesi berrian gailenduko direla berriro Auñamendiak Kantabriako parte uholdekatu honetan. Hain luzaroan eutsi izana mirari izan bada, etorkizuneko berrosatzea mirariago izanen, omen (deskribatzen ari naiz, deskribatzen soilik, ez ironizatzen: nola ironizatuko dut, bada, hain barru-barrutik atzitua naukan gai ardatz, ezin ardatzago, honetaz?... «Nor gera gu? Zer gera gu? Euskotarrak gera gu». «Euskotarrak» bakarrik? Zer da hori? Zertarako?).

Galdera itzela, noski. Gutariko bakoitzak bizitzan ehun mila aldiz gutxienez geure buruari egin izan dioguna. Nire belaunaldikook ere bai, jakina. Joxe Azurmendi eta Rikardo Arregi datozkit gogora, 1960ko hamarkada hartan, galdera horretxekin hain zuzen ere nola inarrosi zituzten bazter guztiak goitik behera, ezker-eskuin. Eta, geroztik, behin eta berriro, errepikatu

izan duguna denok ere, asetzerainoko puntuan, saturazioraino alegia. Erantzun asebetegarririk lortu gabe baina, dirudienez; zeren bestela ez baikenuke galdera bera behin eta berriro formulatuko. Baina «berriro eta behin»: halaxe deitu diot gaurko hitzaldiari, ohiko esaldiaren alderantziz. «Berriro eta behin». *Rien ne va plus*, erruleta-jokoan bezala. Aski. Ez dut gehiagotan galde-tuko. Euskaldun izatea hautatu nuen, hautatu genuen. Kitto. Egin dezadan, beraz, «berriro eta behin», hautu horren «vivisekzioa», eta akabo. Horrela erantzungo diot, dezakedan modurik txukunenean, egin didazuen galdera-erauntsiari. Karabanaren inguruko lehen inguraketa honetan, behinik behin. Gero gerokoak.

Zergatik «vivisekzioa», ordea, enegarren «biopsia» erritual hau? Azkena izango dela agindu berri dizuet, eta hitza betetzen saiatuko naiz. Baina zergatik?... Honezkero, nire adinean, ez ote nituzkeen, bada, ideiak guztiz garbi eduki behar, zahartzaroko endekamenduak lauso ditzan baino lehentxoagoko sintesi argi batean? Bada ez, nonbait. Ezin dut zehatz-mehatz, zientifikoki, erantzun, sentitzen dut. Eta ez da informazio-falta. Beste zerbait da. Neure euskalduntasunean, sekula ez naizela lasai egon, eta oraindik ere ez nagoela. Ditxosozko «adimen emozionalaren» asuntua izango da honako hau ere; modako klixer moduko horri mania badiot

ere. Ahariak eta hariak nahasten zaizkidala burmuinean, horra, Ondarroako aguazilari bezala². Ez dakidala talka eta anabasa honetako zauriak nola sendatu eta korapiloak nola askatu. Gure hizkuntzak gure komunitatearen baitan pairatzen duen «apendizitis kronikoa» atzera bueltarik gabeko «peritonitis akutu» bihur ez dadin zer demontre egin behar dugun aztertzeari ekiten diodan aldiro, zaldiko-maldikoaren edo karabanaren inguraketa bakoitzeko, beti sentsazio berak, beti ziklotimia bera (etsipenetik itxaropenera, eta viceversa, beti emozio eta gogoeta nahasketa bera... «Oro ez da urre», «baina oro ez da urri», «oro ez da urri», «baina oro ez da urre»... Ene, Mary Popins-eneko zaldiko-maldikoa bezalakoa balitz sikiera: halako batean zalditxoa etxolaren engranajetik askatu eta bere kabuz zelai-kaleetan barrena paseatzera irteteko gai, gora-beheraka baina aske... Beste buelta bat eman beharko, beraz. Azkena. *Da Capo* eman ere, musikan bezala. *Da Capo*, hasieratik. *Background* familiarretik hasita. Eta «Dorraoko sindromea», berriro eta behin, analizatuz.

2.- Anekdotak ezaguna, eta ez Ondarroan bakarrik: Zestoa ere aipatua omen, hitzaldiaren ostean Jon Artanok esan zidanez (bihoakio bide batez nire esker ona). Bandoa, 1940 urte ingurukoa, euskaraz honela aldarrikatua: «Gaur arratsaldin, frontoi municipalin, a(h)ari-topekie izango da»; eta erdaraz: «*Hoy a la tarde, en el frontón municipal, habrá pelea de hilos*».

1.3. Neure liburu guztietan beti istorio berak kontatzen ditut. Haurtzaroko bizipen fundazionalak-edo esan ohi diren horiek. Nik neuk ere «aitaren etxea» eta «amaren sua», biak aipatu izan baititut etengabe neure izkribuetan (gogaikarri bihurtzeraino, apika). Euskalduntasunaren kontzientziari dagozkion bizipenak behintzat ugari baino ugariago ageri zaizkit, bai oroimen bizian, bai idazketa ohi den oroimen fosilizatuan.

1.3.1. Aitaren aldetiko herentziari dagokionez, zer esan? Bada, kasu tipiko bat dela nirea. Euskaltzetasuna abertzetasunarekin zeharo lotuta jaso dut txikitandik, «kit» berean. Hainbesterraino non, erresistentzia abertzalearen galga hori gabe, nire familian euskara, Donostiako giro erdaldunean, berehala suntsituko baitzatekeen, eta ia-ia *de facto* suntsitu ere egin baitzen. Anai-arrebetan gazteena nintzen; anai-arrebok bazekiten euskaraz, Mutrikuko euskara bizi eta zoliaz, handik joan baikinena Donostiara bizitzera, ni artean urtebeteko haurra nintzela; umetan eta gaztetxotan ez nintzen euskaraz hitz egiteko gauza (ulertu bai, beti ulertu izan dut, baina hitz egin ez). Tipikoa. Eta hor sartzen da erresistentzia abertzalearen «injekzioa», nire liburu –uste dut– guztietan aipatzen dudana gure aita zena-ren esaldi «apokaliptiko» hura, niretzat zinez ahaztezina, eta kontzienteki behintzat bidelagun

leial izan dudana beti euskaldun bizi nahiaren eta ahaleginaren bidean. Aitak, alturako arrantzalea izaki, denbora gehiena Ternuan eta Gran Solen ematen zuen; lehorrean pasatzen zituen boladetan, ordea, berehala jabetzen zen, jakina, gure etxeko paraderoaz, paradero linguistikoaz, gure «desjatorrizkotze» meteorikoaz: erdaraz mintzatzen ginen anai-arrebok. Amak, lanez gainezka beti (zazpi seme-alaba, ez da broma), nolabait ameto ematen zigun erdaraz sumatzen gintuenean –alegia, beti–. Baina aitak ez. Aitak behin eta berriro esaten zigun: «Nun goz? Espainian ala?». Eta, ondoren, ez beti baina bai sarri, Kataluniarekin konparatzen: «Árek bai, árek beti katalanez hitz egiten deue, ez guk bezela», etabar etabar (Katalunian bizi izana eta borroka egina baitzen gerra garaian, 37tik 39ra arte).

«Injekzioa» aipatu dut, eta hala da: «txute» moduko bat. Mezu kontziente eta ideologizatu horiek zein neurritaraino markatzen gaituzten, alabaina, hori ez dakusat hain garbi. Badute eragina, noski. Baina bestelako batzuek, mezu subliminal emozionalek, handiagoa, nik uste. Enegarrenez (eta azkenekoz, prefosta!) errepasatzen ari naizen nire euskalduntasunaren famili eskalako *back ground* honetan behinik behin, hala delakoan nago. Aitaren «nun goz? Espainian ala?» diatriba eder hark baino areago erasan ninduen beste honako honek, bizipen

itxuraz ezdeus mengel batek, baina nire psikean oinaztargi batek bezainbesteko erlantza eragin eta oinatz ezabagaitza utzi zuenak. Nire *Terra Sigillata*ko elkarrizketa-pasarte batean kontatzen dut, 83. orrialdean, bidenabar nire liburuen gaineko marketin pixka bat egiteari txarto ez baderitzozue behintzat, hona kopiatu-itsatsikodudan honetan:

«Bego, ba. Kursaal zaharrean izan zen. Zenbat urte izango nituen nik orduan? Zortzi-edo, hamar, luze jota. Katekesisaren ez-dakit-zer jai-klase zen, eta garai hartan, horrelako festa eta txorakerietan, aurkezle-lana egiten zuena beti zera izaten zen, Pello Kirten izeneko gizon bat –izen artistikoa behintzat “Pello Kirten” zuena, benetan ez dakit nola zeritzan, Urbieta kalean denda bat zuela, hori bai, gogoratzen naiz...-. Beno, ba, haren meritua zein zen? Euskaldun peto-peto batek hitz egiten duen bezala hitz egiten zuela erdaraz, horixe besterik ez. O sea, gaur egun, berrogeita hamar urte beranduago, etebe-doseko makina bat programatan beste hamaika pello-kirtentxok hitz egiten duten bezalaxe, alegia. “*Ese señor se está burlando del aita*” (sic): horixe pentsatu nuen, ziplo, nire ondoan zeuden katekesiseko ume lagunaren barre-argara artean, “*¿por qué?, ¿qué derecho tiene a burlarse del aita?*”, eta bertan behera isildu, bertan behera seriotu, bertan behera irabiatu, bertan behera... Gaur arte. Nahikoa da, Joxan?». (83. or.)

Bai, nahikoa dela uste dut. *Du côté de chez Lorentxo Arrieta* beste hamaika pasadizo –bat baino gehiago ezin libertigarriago– konta neza-keen arren. Badakizue, beraz: nik Pello Kirteni zor diot neure euskalduntasun-kontzientziaren iratzarpena, neurri batean bederen. Transmisioa? Bai, hori da nire haurtzaroko transmisioa. Beste hainbatena bezalaxe. Erresistentziarena. Eta umiliazioaren aurkako erreakzioarena. Giro urbano asimilatuetako euskaldunon transmisioa horrelakoxea izan da gehienbat, nik uste. Transmisio naturala ez behintzat. Politikoa. Eta traumatikoa: bai jauna, bai andrea. Traumatikoa ere bai. Badakit «erre-akzioa» ez dela aski; «proaktibotasuna» behar omen da (dixosozko hitza berori ere, ia-ia gorroto ere badudana, denek –tiriarrak eta troiarrak– barra-barra darabilten arren). Bueltatuko gara puntu honetara. Baina, oraingoz, bego horretan.

1.3.2. «Amaren sua». Edo *Du côté de chez Arroxa Ugartetxea*. Hemen ere, makina bat ixtorio konta nezake, bihotzari jareginez gero. Baina zertzelada pare bat marraztera mugatuko naiz. Eta ideia nagusi honen inguruan marraztu ere: nire kasuan, hizkuntzaren transmisioan oreka aitak baina legamia, dudarik gabe, amak jarri zuela. Amak erakutsi zidan niri euskarari gozamen-iturri bezala erreparatzen; ez, soilik,

auto-identitatezko inperatibo kategoriko gisa: hori, esan berri dudan bezala, aitari zor diot gehienbat. Amak, ordea, bere euskaldun izatearen poza –ez «harrotasuna» bakarrik, baizik eta «poza»– transmititu zidan. Nola?... Ba, ez dakit hitz bitan laburtzen, baina badaude osagai funtsezko batzuk, hauek ere tipikoak, nik uste. Kantua, adibidez. Amore-emaileago zen ama gure *de factoko* erdalduntze arrapaladariaren aurrean (erdararen eguneroko uholde ahaltsua nola ubidera?, nola-non-noiz eraiki haren bezamenerako presa eraginkorrik?), baina tarteka, maiz, bere historia eta bere familiarena, bere bizipenak, bizipen linguistikoak barne, kontatzen zizkigun; eta kantatzen, halaber, gure belaunaldian dagoneko desagertua den baina gure aurrekoengan tresna ezin biziagoa zen ahozko memoria izugarri aberats hari esker, hainbat eta hainbat kantu eta bertso zahar. Euskaldun izatearen laketasuna. Horra, niretzat, amaren jaraunspen ezin baliotsuagoa. Kantu-memoriaz gain, beste bat ere bai baitzuen hura bezain aberats: testigantza linguistiko kontzientea, supra-linguistikoa esanenezake zehazkiago. Hizkuntzaren beraren esamoldeei buruzko oharrak, gramatikaltasun edo korrektotasunetik harantzagokoak, edertasunari edo adierazkortasunari begirakoak. Eskuarki guri mutrikuarrez mintzatu arren, horrelakoe-tan bere jatorrizko markinera jalgitzen zitzaion.

Hamaika perla dauzkat harengandik jasoak eta oroimenean gordeak. Pare bat adibide: «Hori, horратиño, gure ama zanak esate ´eban lez, dana jakitun ustezko ezer ezjakina baino ez da» (persona sasi-jakintsu harroaren definizio sekula entzun dudarik biribilena); edota «horrek, horратиño, egingo dau berak bete leku» (norbaitek, bere burua defendatzearen, beste norbaiti aurre egin eta «lekua» hartzen uzten ez dionean). Pare bat esan dut, baina hirugarrena ere oroitu gabe ezin etsi: Donibane Lohizunen gertatua, hamazazpi urteko neskatila artean, hara udaldia ematera joan ohi zen Donostiako familia aberats batean neskame, harategian mandatari³. «Arkumea» erosi nahi, eta harakinak galde: «Bildotsa? Bai, fite. Nondik nahi duzu? Aitzineko aldetik, edo gibealeko aldetik?». «Gibelik ez behintzat!», gure amak oster. «Aurreko aldetik edo atzeko aldetik, erraiten duzue zuek naski», harakinak bai jakin, jakina, neskatila bizkaitarraren durduzamenduaren arrazoia zein ote. Umorez kontatzen zuen amak anekdota, umorez eta atseginez, hizkuntzari berari adi, «aitzin eta gibel».

3.- Frantses izpirik jakin beharrik ez garai hartan Donibanen nonbait, euskara aski dendarik denda eta azokaz azoka ibiltzeko: «*Bon jour, mignonne*» hitzok bakarrik ikasi omen zituen gure amak frantsesez, berari esanak, eta berak ondo gogoan hartuak.

Eta umorez eta atseginez kontatzen zigun, halaber, berez ikaragarria den beste honako hau (*Terra Sigillatan* ikus dezakezue, 142. orrialdean, nire anti *best-sellerik* astunenean barnertzeko gibelik baldin baduzue behintzat):

«Joni askotan kontatu izan diot hau, baina zuri ez, Amaia. Ba al dakizu ezpain-oholezko lehen hitz gure amak ulertu uste izan zuena (ongi moldatu diat perpausa, Roger?) zein izan zen? *Kafre*: sic, *cafre*. Bost urteko neskatilatxoaren zenean, eskolara joan zen lehen egunean, Arritxinagan, Markina-Xemeinen, Bizkaian, o sea en España de toda la vida, por supuesto, oiga. Maestra abnegada eficiente acendrada ínclita portavoz del insigne crisol civilizador del Gran Manintzin hark horixe errepikatzen omen zion oihuka eta garrasika etengabe gure amari, beste hainbat hitz beronek zipitzik ere ulertzen ez zizkionekin batera, noski. Eta *cafre* bera ere *kafe* ulertzen Goitti baserriko neskatatxoak: “Kafie erosta juteko ete dinost andra onek?, baina, horretarako, dirue emon bi´ko´st ba, dirue eskatu bi´ko´tsat ba, ene, eta zelan esaten da erderaz dirue, dirue, ene, zelan da?...”».

Informazio-iturri oparoa «Sareen Sarea». Hona hemen lagin txiki bat, «kafre» edo «cafre»-tasunari buruz, gure Wikipediatik hasita :

Kafre

Kafrea edo **kaffira** (arabieraz, *kafir*, fedegabea). Hegoafrikako bantu-etniako kidea da. Portugesek erabili zuten lehen aldiz *kafre* hitza Hegoafrikako tribuetako kideak izendatzeko, dirudienez gaizki ulertu zutelako kostaldeko merkatari arabiarrek erabiltzen zuten hitzaren berezko esanahia. Gaur egun, Hegoafrikan *kafre* hitza gutxiespen-adieran erabiltzen da beltzak izendatzeko (afrikaansez, *kaffer*), eta irain-hitz moduan ulertzen da han. 1775ean boerrek *Kafreen Herria* izeneko lurraldean sartu ziren xhosen lurrak bereganatzeko asmoz; horren ondorioz, 1779 eta 1850 bitartean zortzi gerra izan ziren, *kafreen gerrak* esaten zaienak.

cafre

adj.-m. ETNOG. Díc. del individuo perteneciente a un grupo de los bantúes meridionales que habita en el África Austral.

fig. Bárbaro, cruel.

Zafio, rústico, ignorante.

¿Qué es "Ser un Cafre"? El apelativo cafre se aplica a toda persona o situación que encarna lo opuesto a la civilización y la cultura. En realidad, se llaman cafres a los habitantes de **Cafrería** o **País de los cafres**, grupo de pueblos bantúes que habitaba la región oriental de África del Sur, en **El Cabo** y **Natal**. (...) La acepción de la palabra Cafrería se redujo gradualmente, primero a las regiones de lengua bantú, después a la zona marítima que se extiende a lo largo del océano Índico, desde la colonia de El Cabo hasta las regiones del Zambeze y, finalmente, a zonas reducidas de esta región costera. Éstas son la antigua **Cafrería británica** o **British Kaffaria**, anexionada a la colonia de El Cabo en 1863, y la Cafrería propiamente dicha, que hoy coincide con **Transkei**.



Oharra: emakume bakarra ezkerrekoa izaki, horra aurkikundea: hori berori izan behar Arroxa Goittiko!

Garbi dago. Herri bantua gara, aspaldi banatua, mendetan sakabanatua, mendekotasunean sakailatua, baina bizirik dirauena gure Transkei *propiamente dicho* honetan. Kafreen seme-alabak; kafreak gu geu ere, beraz. Eta?... Ez dut oso gogoko esaldi estereotipatu hori («Euskalduna naiz eta harro nago»); primarioegia iruditu izan zait beti, ur gaineko bitsa, errazegi iraungikorra. Baina, beharbada, oker nago. Nik neuk

uste baino zuztar trinkoagoak eduki ditzake nire euskalduntasunaren aldeko hautuan Arri-
txinagako maistra haren itzalak, itzal irainkor
iraunkorrek. Ez da aski, badakit, jasan dugun
kolonizazioaren kontzientzia hartzea. Baina bai
oinarrizkoa. Oinarri hori gabe, nekez antola bai-
kenezake gure hizkuntza-nortasunaren berres-
kuratze eta berrosatzearen aldeko estrategiarik.
Ez da kexuzko agonia. Burua tentetzeko aukera
emankorra baizik, bere lotsagabeen ere, edo
bere lotsagabeen hain zuzen ere. «Kafreak gu?». «Bai, eta zer?».

1.3.3. «Dorraoko sindromearen» shock trau-
matikoaz jabetu eta geure buruaz jabetzen has-
teko eta jabetzen jarraitzeko garaia. Aurrena,
baina, azal dezadan zeri deritzadan «Dorraoko
sindromea»: Joan Mari Torrealdaik bere *El libro
negro del euskeran* dakarren testigantza batek,
irakurri nuenean, sorrarazi zidan sarrakioari.
Ezaguna da gertakaria. Nafar Ergoienako herri
horretako maisuak, 1960 urte inguruan, mutiko
bati, euskaraz mintzatzen ari zelako, egin zion
eraso kalifikaezina: arbelerako erabiltzen ziren
konpas tramankulu tzar haietako baten burdi-
nazko puntaz mihipeko giharra ziztatu eta ia
erauzi zionekoa. Hizkuntz terrorismo hutsezko
ekintza bat, duen sinbologia ezin bortitzagoa-
gatik ahaztezina. Euskaldunoi mihia-mingaina

erauzi, horra eskola-maisu haren helburu izugarria; eskerrak, baina, guk hizkuntzari *hizkuntza/mintzaira/berbeta* deitzen diogun, eta ez *lengua/langue/tongue*; agian, deskuidatu dira, guk organo fisiko honetan –mihian– ez, baizik eta geure barne-muinaren muinagoan gordeta baitauekagu geure hizkuntzarekiko maitasuna eta atxikimendua. Hala bedi. Eta hala ez bada, hala biz.

Shock traumatikoen terapiak ez baitira hain sinpleak izaten. Esan berri dudana kontsolamendu poetikoa suerta dakiguke zenbait aldartetan, baina oro har, errealitatearen ildo gupidagabea, ez dago horrelakorik. Bortizkeria asimilazionistaren zanpagailuak jo eta txikitu egin ohi du gertatuaren gomuta bera. Errepresioak lehenik lausotu eta segidan inkontzientearen ilunpera uxatzen digu errepresioaren oroitzepea bera; mekanismo artxi-ezaguna da, oinazeari gain hartzeko tresna psikologikoki eraginkorrena ahaztura baita. Horrelako zerbait egiaztatu ahal izan genuen, duela hamarren bat urte, salgai omen zegoen etxe bat ikustera gindoazelako aitzakiapean, emazteak eta biok Dorraora egin genuen bisitaldirakoan. Sarrera, hasteko, triumfala izan zen. Arturo Campionen *El tamborilero de Erraondokoaren* biki ia perfektua. «*Yo no hablo en eso*», erantzun zigun, zakar, kontaktatu genuen lehen pertsonak, bere ezkaratzean lanean ari zen gizon batek. Etxea salgai

zutenengana bideratu gintuen halere, «*pregunten por...*», «eskerrik asko», «*no hay de qué*»: hango etxekoandreak bai, bazekien euskaraz, zoragarri; alabak ez; suhiak ere ez; bilobak ere ez. Zertarako jarraitu... Zenbat horrelako *Dorrao revisited* bizi izan ditugun euskararen minbizia erraietaraino metastasiaturik daramagun euskaltzale guztiok, Euskal Herri osoan barrena. Galdetu genien, gonbertsazioa aurreratu ahala, ea ezagutzen zuten, ea oraindik bizi zen konpasaren atentatu terrorista (hitz hauekin ez, jainkoek aparta!) pairatua zuen mutiko hura, honezkero edadetua behar zuena noski. Ez zekiten ezer. Herriko Urliari, Sandiari eta Berendiari galdetuko omen zieten, hori agindu ziguten behintzat, entusiasmo handirik gabe, nik uste. Eta deituko zigutela, izena eta telefonoa utzi baikenizkien. Gaur arte. «Goazemazu hemendik, ondoeza jartzen ari zait-eta», esan nion emazteari. Eta joan ginen Beriain dotorearen magaleko herrixka ezin ederrago hartatik, Lizarragan gora, tunelean barrena.

Zergatik ondoeza, ordea? Ez al dakit zer dagoen, bada? Ez al dakit, sobera jakin ere, errealitatea guztiz kontraesankorra dela? Ez al dakit, oraindik ere, gure hizkuntzaren higadura ez dela eten, baina aldi berean han-hemenka bir-loratzen ari dela? Zer lanturu eta zinkulin klase da hau, arranopola? Utikan auto-delektaziozko

ilunabarkeriaengel belaxkok!... (barka, arren, erretolika, ez doa zuei zuzendua, neure buruari baizik: sarritan egin behar izaten baitiot errieta, shock-egoera soraiotik iratzartzeko, ulertzen?). Bai, ulertuko ez duzue, bada. Hori hor dago, badakigu. Noizbehinka atera behar ditugu aire zabalean egurastera gure arima-hondoetan ditugun mamuak. Baina ezin gera gaitezke horretan bertan goxo (edo bertan garratz). Arestik aspaldi esan zuen: «Euskararen asturua ez da gauza segurua», eta aspaldian bezain arestian, ezer seguru jakitekotan, horixe bai badakigula. Eta, hain zuzen ere badakigulako, pasa gaitezzen, pasa nadin beste maila batera. Edo itzul nadin, hobeto esanda. Maila diskurtsibo, analitiko, ideologiko, razionalera⁴. Norberaren historiaren azpildura, edo *back ground* delako hori, azalaraztea zilegi dela uste dut, eta beharrezkoa ere bai agian. Narzismoan erori gabe, jakina. Baina zilegi, nik uste. Denok banan-banan egin beharreko ariketa ere bai, beharbada. Gure euskalduntasunaren erroei erreparatzea –«erroei», esan dut, ez «erruei»: ia soinu bera dute hitz

4.- «Razionalera» diot, berariaz. Joxe Azurmendiren aspaldidaniko erabilerari jarraiki. Izan ere, segada bitxia gerta dakiguke gure hizkuntzak hitz-hasierako R fonemari dion arbuioa, muzintasuna. «Arrazionala» diogunean zer diogu? Ez. Orain arte pre-razionalki mintzatu banaiz, hots, a-razionalki, orain osteraberriz razionalki nahi nuke.

biok, baina elkarren antipodetan daude. Nirea adibide bat besterik ez da izan. Ez bizipena, ez ideologia, biak bata bestetik bereizirik, ez baitira aski, ez gai honetan eta ez beste ezeinetan. Sentimenduaren eta pentsamenduaren arteko oreka etengabe bilatzera kondenaturik gaude, horixe dugu gure giza kondizioaren aurki-iferentzu bazterrezina, lorra bezainbateko loria.

II.-Bigarren inguraketa («Nora»)

GOAZEN, BERAZ, PANTAILAN, zenbait testu irakurri eta komentatzera. Joxe Manuel Odriozolaren *Estatu etnozidaren kontra* («edo Jatorrizko hiztun-herriak nola, zergatik eta nork arrotzen dituen») deritzan liburuaren aurkezpenerakoan autoreari berari egin nizkion «zirikada» batzuk dira. «Zirikadak» diot, zeren ekitaldi hartan deabruaren abokatuaren papera antzeztu bainuen, baita lortu ere, nik uste, nahiko liskar dialektiko giro polita sor zedin bertan geundenon artean. Orduantxe bezala utzi ditut testuok; beraz, hor azaltzen den «zu» hori bera da, Joxe Manuel⁵.

5.- 2012ko urriaren 24ko hitzaldian, astirik ez zegoela-eta, ez genituen proiektatu testuok. Bertan behera gelditu zen, beraz, «Bigarren inguraketa» delako hau. Ikus I. Eranskinean fitxa guztiak.

Liburu honi buruz, oro har, zer esan? Bada, lehenik eta behin, harrituta nagoela, nire ustez ondo baino hobeto merezia duen oihartzuna eman ez zaiolako. Niretzat, lan ikaragarria da. Ikaragarria, min egiten duelako bere gordintasunean. Baina baita mina gainditzeko bideak iradokitzen ere; gure hizkuntzarekiko bizipe-na oxigenatuz, munduan gu bezalatsu dauden beste dozenaka hiztun-herriren berri emanaz, gure egoera haienekin erkatuz, partekatuz. Afrika, Amerika, Europa, Australia, Txina, Siberia, Indonesia... mundu osoko etnozidioen deskribapen zehatza dakar liburu honek. Herriok galbidera garamatzen gaitz globalaren diagnostiko zehatza eginez, ezaugarri komunak desmozorrotuz. Eta sendabide bila, noski. Garbi edukita, betiere, hau minbizia dela, ez gripea. Eztabaida genezake, eta eztabaidatu behar dugu, zein tratamendu ote egokiena, kimioterapia, edo makrobiotika, edo dena delakoa. Egin ez dezakeguna, ordea, geure burua engainatzea da, zainetan plazebo efektuzko pare bat «orrazkada» ziztatuz noizbehinka. Oso liburu interesgarria, hitz batean.

Baina, baina... zer nabil? Luzamendutan, noski. Ekin diezaiodan, bada, hurrengo eta, gaurkoz, azkeneko inguraketari.

III.-Hirugarren inguraketa («Nola»)

EZ DAUKAT IHESBIDERIK. Jauzi egin behar dut karabanaren erdira. Nire «Hodei Beltzek» jaurti beharko ditu, halako batean ere, bere geziak. Atrezzo poetikorik gabe, *back ground* autobiografikorik gabe. Besteren hitzetan, ofizio gutxi-asko antzetsuz, babestu gabe. Zer daukat nik esatekorik?... Hemen dago, oso-osorik, gal-detegia. Orain arte, zeharka besterik erantzun ez diodana. Para dezadan berriro begien bistan (letra ttipiz bada ere, gehiegi kikiltzea ere ez baita gomendagarri):

«1.-Zer eman du euskal kulturgintzak XX. mendeko 60ko hamarkadatik gaur egunera arte? Zer ikasi behar dugu datozen hamarkadei begira?

-*Urteen joan-etorrian euskal kulturgintzari dago-kion definizioan zerbait aldatu al da?*

-*Zer zen eta zer da "euskal" kulturgintza delakoa? Zertaz hitz egingo diguzu euskal kulturgintzaz ari zarenean?*

2.- Euskal kulturgintza 1960-80 bitartean.

-*Zertan zen euskal kulturgintza frankismopeko azken aldian? Garai hartan abiarazitakoetatik (sortzaileak, hedatzaileak, antolatzaileak...) zertzuk azpimarratu nahi dizkiguzu? Zergatik horiek?*

-*Euskara batuak zer ekarri zion kulturgintzari? Belaunaldien arteko harremanak zein nola/*

zer-nola joan ziren garai hartan? Noren artean sortzen ziren aliantzak? Nola egituratzen ziren?

3.- Franco hil ondorengo instituzionalizazio berria:

-Zer ekarri zuen EAEN eta Nafarroan instituzionalizatze-prozesuak?

Instituzionalizazioaren ondorioez zer iritzi daukazu? Zertan izan zen mesedegarri euskal kulturagintzarentzat? Ondorio kaltegarririk?

-Zertan izan dira indarguneak eta zertan ahuleziak azken 30 urteotan? Zein nola/Zer-nola uztartu dira dinamika instituzionala eta euskal kulturagintzaren baitako gizarte mugimendua (elkarte, enpresa, etab.)? Ziklorik-edo bereiziko zenuke? Zeren arabera?

-Transbertsalizazio politikoak (abertzale vs ez-abertzale; abertzaletasunaren baitako fragmentazioa) zer eratako ondorioak ekarri dizkigu euskaldunoi azken hamarkadotan? Hamarkadak aurrera egin ahala, transbertsalizazio horiek indartzen edota ahultzen joan(goa) dira?

-Aurrera begira non ikusten dituzu indarguneak eta ahuleziak euskal kulturagintzaren baitan? XXI. mendeko gizartean non ikusten dituzu aukerak eta mehatxuak?».

Has nadin, beraz, erantzuten. Swing modura, jazz zizkolatsu jiteko bariazio/desbariazio-tan bada ere, alafedea... («Aramaio, dabenak ez bemaio», «artuko dot esku batean gezia, bestean zuzi irazekia, erreko dot Aramaio guztia!»).

III.1. ZER EMAN DUEN? Guztia eman du. Jende askok. Euskal kulturgintzan diharduenak. Eta ematen segitzen du. Baina oraindik oso urrun gaude Euskararen (sic, maiuskulaz) nuklearizazio politikotik, fusiotik nahiz fisiotik. Apendizitis kronikoa. Badirudi gure politikariak ez direla oraindik jabetu, ezta jabetzera hurbildu ere, Euskara (sic, maiuskulaz) dugula ardatz eta, beraz, lehentasun estrategiko erabatekoa zor diogula. Tokitan gaude Sánchez Carriónnek hain zehazki deskribatutako «haustura tentsio» hartatik: «Espazio sinbolikoaren nuklearizazioa (= AB eta BA hiztunak bildu egiten dira hizkuntzari prestigioa eta gaitasun politikoa emateko helburuarekin)». Eta tokitan halaber haren 2. axioma hartatik: «Estatu baten barruan minorizatua dagoen hizkuntza komunitate baten biziberritzeko itxaropena ezin da estatuaren ekimenean egon (ezta gobernu aldaketa baldin badago ere). Bidea, lehenik eta behin, komunitatearen konpaktazioa da».

Ala oker nago? Ezkorregi? Ez al dago bazterretan zantzu positiborik?... Agian bai. Baina horixe: «bazterretan». Eta –galdera-katea berez dator–: zenbaterainoko indarra dute bazterrek? Zeri esaten diodan «bazter» definitu behar-ko nuke aurrena, badakit (pelikula yankiatar-ko hizkera polizial-militarraren kutsua badu ere). Botere politikorik gabeko elkarteei deritzet hala, *think tank* nahiz *agit-prop* nahiz *lobbie*

gisa funtzionatzen duten pertsona-taldeei. Eta? Zer moduz gabilta alde horretatik?... «Zer ikasi behar dugu datozen hamarkadei begira?», galdetegiak galdetzen duen bezala... Ez dakit. Nahiago nuke baneki. Baina, nolana ere, sumatzen dut, eta eskarmentu nolabaitekoa ere badut nire iritzi honen zurkaizpenerako, elkarte edo talde antolatu horien presiorik gabe jai dugula. Alderdi politiko abertzaleen lehentasunen praxian BETI dago zerbait euskara baino inportanteagoa, BETI (zilegi bekit enfasia). Eta alderdi politiko espainolistenean zer esanik ez: baloia gure area txikitik aldaratzea lortzen dugun bakoitzeko, haien areara hurbiltzen ere hasi baino franko lehenago, falta ziztukatzen digute, eta kitto. Lanbide erraza dute, eroso oso. 1982ko Euskara Legetik eta 1986ko Vascuenceren Legetik elikatzen dira, eta ez soilik aurrerapenik xedatu gabe, murrizketa eta heretsadura gero eta lotsagabeagoak ezarriz baizik. Hori denok dakigu. Nola buelta eman? Sokari nola gure alderago tira?... Ez daukat erantzunik, sentitzen dut.

Duela 20 urte banuelakoan nengoen. Erantzuna, alegia. Estrategia konkretu baten ildotik. Ezker abertzalearen, Euskal Nazio Askatasunerako Mugimendu osoaren, estrategiatik. Hemen dakarkizuet garai hartako Hizkuntza Politika Orokorren laburbilpen modura fotokopiatu

genuen dokumentuaren ale bat. Pieza arkeologiko bat, zinez. Eta ez diot hau neure buruaren zigorgarri, masokismoz edo kultura kristautik askok hain barneratua daukagun errudun-aitorkizunerako pultsioz. Pieza arkeologikoa da, buztinezko oinak zituelako. Estatuaren kontrako pultsuan geuk irabaziko genuelako proiektzioan (ez hipotesian soilik, konbikzioan baizik) oinarritua zegoelako. Eta ez da hala gertatu, nabari baino nabariago denez. Plan B delakorik ba al genuen, balizko hipotesi-konbikzio nagusiak porrot egin zezakeenerako?... Bada ez, nik uste; funtsean, ez. Ezer ez da alferrik egiten, hori ere egia da, eta badakit. Orduan landutako hainbat kontzeptu, diseinaturiko hainbat interbentzio-lerro, zorroturiko hainbat «suzko gezi» dialektiko, bizi-bizirik daude oraingo ezker abertzale dudarik gabe askoz ere *lightagoaren* izkribuetan, programetan, proposamenetan, adierazpenetan eta ekintzetan. Ekintzetan ere bai. Baina zeinen apalki, ene bada. Adibide xume bat gogoraraztearren: pentsa nolako istilua sortu den Gipuzkoako Foru Aldundiak kazetari erdaldunei «pinganilloak» jarri nahi dizkielako, prentsaurrekoetan euskaraz mintzatu ahal izateko. Oraindik horrela gabilta?... Ba, bai, oraindik horrela gabilta. Zirkinik txikiena ere egiten baduzu euskara «plazaratzeko» (ospakizun edo ekitaldi liturgikoetatik harantz), berehala datozkizu gainera hango eta hemengo artileria

astunaren obus guztiak («*nazis, talibanes*» eta *abar*). Tokitan gaude nuklearizaziotik.

III.2. EUSKAL KULTURGINTZA 1960-80 BITARTEAN. Hala deritza galdetegiaren bigarren atalari. Eta aipamen berezia egiten zaio euskara batuari. Ez dut esankizun handirik, maila orokorrean. Neure esperientzia propiotik bai, makina bat gauza esan nitzake, baina nahikoa «zafratu» zaituztet hitzaldi honen lehen zatian neure bizipen autobiografikoez. Oso gaztea nintzen, bistan da. Baina bi pertsona, bi maisu, aipatu behar ditut. Bata, Juan Mari Lekuona. Seminarioan –apaizgai izan nintzen 1968ra arte–, Juan Mari Lekuonak eragin benetan erabakigarria izan zuen nire euskaltzaletasunean, eta beste askorenean. Gero, 1973tik aurrera, Jose Luis Alvarez Enparantzak, *Txillardegik*. Zer esan bi pertsona horiei buruz? Ba, isiltasuna bedi omenaldirik hunkigarriena. Itsasoa ezin baita errendatu hitzaldi baten erretenera.

Zertxobait bai, nahi nuke esan kezkatzen nauen puntu bati buruz. Kontuz neodialektalismoarekin, han-hemenka indarra berrartzen ari da eta aho biko ezpata suerta baitaiteke. Denok dakigu zer-nolako erabaki monumentala izan zen euskara batua sortzea eta gauzatze bidean jartzea. Ez dezagun maxkal eta honda gure *koine* preziatua. Tokian tokiko aldaki fonetiko, morfo-sintaktiko eta lexikoak ondo daude, jakina, hiz-

kuntza biziaren agergarri diren heinean. Baina kontuz. Idazteko, komunikazio formaletarako, eta norberaren herrikoak ez diren beste euskaldunekiko harreman mintzaturako ere, euskara batua, arren. Bestela, hainbeste kostata eraikitako gaztelua porrokatuko zaigu, hareatan hondar. Errespetua zor diegu –errespeturik *handiena*, ausartzen naiz esatera–, euskara helduaroan ikasia duten herkideei, euskaldun jatorrizkotuei edo jatorrizkotu-nahiei. Eta permititzen badi-dazue, etxetik mintzaturako natzaizue. Emaztea euskaldun berria dut (hala definitzen du bere burua: «Ni beti euskaldun berri»). Duela pare bat hilabete Ondarroan izan ginen nire izeko baten hiletarakoan, hango lehengusu-lehengusinekin barriketa oparoan aspaldiko partez. Eta honatx emaztearen komentarioa, kotxean etxera bueltan gentozela –eta erdaraz, nekearen nekez–: «*¿En qué hablan? ¿En euskera o en serbo-croata?*». Saiatu nintzaion bromaz erantzuten, esanez ezen «dagoeneko ez dago serbo-kroatarik, neska, hango gerraz geroztik hizkuntza bera ere erdibitu dute: serbiera alde batetik eta kroaziera bestetik, eta are bosniera ere, lehen alfabetoan bakarrik bereizten ziren, serbiarrek zirilikoa zerabilten eta kroatek latinoia, hizkuntza berbera izan arren, baina orain...», «*vale, vale*» –moztu zidan erudizio amultsuzko berbaldia–, «*pero sigo sin entenderles ni papa*». Larria da. Hau ez

da txantxetako gauza, lagunok. Ez dakit hizkuntza eslabiarrik bat ere, baina apustu egingo nuke alde handiagoa dagoela mintzairan Ondarroatik Mutrikura, Zagrebetik Belgrado nahiz Sarajevora baino. Nola ulertaraz gure edozein «BA»ri ondarrutar edo mutrikuar senitartekoen ahotik benetan entzuten ari dena (demagun: «Emon notsezan gorantzixek zuen partetik» edo «eman niozen eskuminak zuen partetik») berak hizkuntza estandarreko «eman nizkion goraintziak/eskuminak zuen partetik» bezala deskodifikatu behar duela? Hizkuntza *standard* esan nahi nuen, noski; ez hizkuntza *eztanda-r*, jakina. «Neutsozan-Notsezan-Niozen-Nizkion-Nittion-Niozkan-Nerauzkion-Neuzkion-Niriotzün»... hizkuntza bera al da, izan ere? A ze meritua gure euskara batuaren arkitekto eta igeltseroena! Hura bai erronka, hura bai balentria!... Mitxelenak badu bere omenezko eraikina Donostian. Noizko Txillardegiri beste horrenbestearainokoa gutxienez? «Gaztetzik bir zatxu», zioen Gazte Asanbladaren mural batek. «Gaba ta jaixe geurik be badiz», Bilgune Feministaren beste batek. «Serbo-kroata»? Ez. Euskara bizi zoragarri baten testigu. Ondarru: «Bixitxi marabili re». Bai. Baina... «Denak ala inor ez, dena ala ezer ez, bakarka ezin da»... eta abar. Fusilik ez, baina katerik ere ez, baldinbaite-re. Ez dezagun ahantz, otoi.

III.3. FRANCO HIL ONDORENGO

INSTITUZIONALIZAZIO BERRIA:

Hirugarren enbor hau, «kanaerdiko» hau, bai dela zur zailekoa, ebakitzen eta erabakitzen nekeza. Galderen galderak baitiraki berorren muinean bor-bor: gure hizkuntza biziberritzeko aski al da daukagun egitura politikoa? Erantzuna, askoren ustetan –ni neu ere tarteko–, ezin ozenagoa, ezin biribilagoa da: EZ. Konforme. Baina... («bainak abuztuan», esan ohi zuen gure ama zenak, eta «bainā madarikatuba!» eskumikatzen zuen bortizki gure juntagailu adbersatibo xumea Prai Bartolome Santa Teresakoak ere), baina... zer? Zer egin behar dugu? Independentziaren zain egon? Ez, alajaina. Gure hizkuntzaren biziarentzat plazebo-efektuzko miopia bezain kaltegarri suerta daiteke panazea-asmozko hipermetropia.

Hau esatea erraza da, badakit. Sendabidea bilatzen lanak. Hemen bai ezpaltzen zaizkidala zurak eta egurrak, hemen bai kamusten aizkorak (eta sugeak?, ez: jainkoek aparta!). Ikusi berri dugu –edo, hobeto esanda, ikusiko duzue aurrerago zuen arteko solasaldiren batean–, Joxe Manuel Odriozolak bere liburuan dioena, Suomi, Flandria, Suitza, Quebec, Estonia, Letonia eta beste hainbat herriren esperientziak aurkeztu eta aztertu ondoren: «Arrakastatsuen multzoan hiztun-herri beregainak daude, gehienbat. Besteak, nahiz eta estatu arrotz baten mende

egon, herri zailduak dira hizkuntza normalizazioaren plangintza-politiketan» (303. or.). Baita 824 oin-oharrean dakarren Txillardegi handiaren aipua ere: «Irlanda da salbuespena. Normalean independentzia lortzen duten herriek beren hizkuntza salbatzen dute. Salbuespena Irlanda da eta guk modelo bezala hartzen dugu».

Hemen busti beharra dago, derrigorrez. Análisi soziolinguistiko konparatiboak-eta oso ondo daude, eta beharrezkoak dira. Baina hiztun komunitate bakoitzaren barne-indar eta auzolan erkidetuan eta iraunkorrean datza etorkizuna, bale ala kale. Ez dago, horretarako, aparteko jakinduria espezializaturen beharrik. Denok dakigu. Geure esku dagoela hautua. Ez «geure esku» zentzu bakarkakoan, euskararen hil ala biziko auzia ez baita hiztun banakoaren balizko erruduntasunari-edo egoztekoa, gure *intelligentsia* sistemoak predikatzen duen bezala. Zentzu politikoan baizik. «Politikoan», zentzu zentzuzkoan esanda, benetakoan. Hots, ez gara Letonia, adibidez; eta auskalo inoiz izango ote garen. Baina zergatik ez gara, dagoeneko, Katalunia, esate baterako?... Galdera «inozoak» irudituko zaizkizue behar bada; ezagunaren ezagunaz ezagunegiak, eta higauegiak. Baina ez dira, nire ustez.

Ezagutzen dut, ezagutzen dugu, esan berri dudanari hainbat katedra jakintsutatik nahiz pulpito laikotatik nahiz administrazio-bulego serio-

tatik erantzun ohi zaiona. Euskal Herrian (uler bedi: Euskal Autonomia Erkidegoan, Kafre Herri osoaren Transkei *propriamente dicho*an), Euskal Herrian, alegia, «Estaturik gabeko herrien artean, inon baino urrats gehiago egin ditugula gure hizkuntzaren biziberritze-bidean» (ez da inoren aipu hitzez hitzekoa, baina izan liteke). Eta konparazioak, noski. Eta auto-ederrespenak, noskiago. Gales-Cymrurereko erkapena, adibidez. Han baino hobeto omen gaudela: han %21,7 galesdun, hemen %25etik gora euskaldun; han ikasleen %20ak bakarrik ikasten omen galesez, hemen %90etik gorak (!) euskaraz; han egunkaririk ez, hemen bai; han telebista eta irrati kate bana galesez, hemen beste horrenbeste, publikoetarik, eta ez dakit zenbat pribatuetarik, euskaraz; han 600–650 titulu berri argitaratzen omen urtero galesez, eta hemen 2.000etik gora euskaraz⁶.

6.- Ned Thomas galestar adiskidearen ohoretan, ohar koxkor bat. Adiskide berria niretzat, aspaldikoa, eta kuttuna oso, Txillardegirentzat: *motu proprio* etorri nahi izan zuen Jose Luis Alvarez Enparantza zendu berriari aurtengo -2012ko- urtarrilean ezker abertzaleak egin zion omenaldira, Donostiako Victoria Eugenia. Gure hedabideetan «kazetari» soiltzat aurkeztua izan zen arren, Ned Thomas galestar kulturako pertsonaiarik gorenetarikoa da, hango Hizkuntza Akademiako Buru, Unibertsitateko katedradun, eta idazle oparoa. Gales hizkuntzaren hil-hurren egoerari aurre eginez aktibista nekazina izana gaztetan eta gaur egun ere halaxe dirauena. Famatua da oso Galesen, 1960ko hamarkadan, BBCren telebista-hedagailu eta emisio-zentro batean Nedek eta beste lauzpabost *kimruzalek*

Eta? Horrek zer esan nahi du? «*El que no se consuela...*» esan behar ote, gure okupazio-hizkuntza maitean? Ez. Ez dut ironiarik, are gutxiago sarkasmorik, erabili nahi hain munta handiko gai batean. Ez da gutxiestekoa, inondik ere, euskararen doitasunaren eta duintasunaren alde hamarkada hauetan barrena denok –beraz, baita EAEko administrazio autonomikoak ere– egin dugun ahalegin gaitza. Hizkuntza larreakoa noranahikotzen lan handia egin da, egin dugu, denok, tiriarrok eta troiarrok. Larre motzean, hori bai. Baina galdetzen badidazue –galdetzen didazuen bezala...:

(gure *euskaltzaleren* modura esanda) egin zuten protesta-ekintza: gales hizkuntzaren aldeko manifestu bat irakurri, eta ondoren hedagailua itzalarazi. Ez puskatu edo lehertu, baina bai deskonektatu, bertako langile *kimruzale* baten laguntza teknikoaz baliaturik. Britaniar Armadaren Ipar Irlandarekiko komunikazio-sarearentzat, ordea, instalazio hura guztiz garrantzitsua izaki nonbait, han omen ziren minutu gutxiren buruan makina bat polizia, baita sas indar berezietako hainbat soldadu ere, helikoptero eta guzti. IRAko komandoren baten ekintza zelakoan, ustez. Atxilotu zituzten, zenbait orduz komisarian atxiki, eta libre utzi. Gerora egin zitzaien epaiketan ere zigorrik ez. Antzekorik gurean gertatu izan balitz, ez dut pentsatu ere egin nahi –pentsatzeko premiarik ere ez– zeintzuk izango ote ziratekeen ondorioak. Ez dut uste Ned Thomas bere «gaztetako bihurrikeria» hura irribarre jostalariz kontaktzen jardungo zigunik, 2012ko urtarrilean, gure etxeko sukaldean, patxaran kopatxo lagun.

-Zertan izan dira indarguneak eta zertan ahuleziak azken 30 urteotan? Zein nola/Zer-nola uztartu dira dinamika instituzionala eta euskal kulturgintzaren baitako gizarte mugimenduen (elkarte, enpresa, etab.)? Ziklorik-edo bereiziko zenuke? Zeren araberakoak?

-Transbertsalizazio politikoak (abertzale vs ez-abertzale; abertzaletasunaren baitako fragmentazioa) zer eratako ondorioak ekarri dizkigu euskaldunoi azken hamarkadotan? Hamarkadak aurrera egin ahala, transbertsalizazio horiek indartzen edota ahultzen joan(goa) dira?

-Aurrera begira non ikusten dituzu indarguneak eta ahuleziak euskal kulturgintzaren baitan? XXI. mendeko gizartean non ikusten dituzu aukerak eta mehatxuak?

Nik zer demontre erantzungo dizuet? Purrustada batekin seguru asko, lehen-lehenik: «Zikloak? Bai, betiko ziklo zikliko ziklotimiko errepikakorak, *Marmotaren eguna* pelikulan bezala, egunero berdin: Euskaltzaindia/Euskarazaintza, AEK/HABE, Bai Euskarari/Bikain, Behatokia/Elebide, Pixka bat es mucho eta Gutxi da asko, beti berdin, beti musika bera». Baina ez. Badakit zaldiko-maldikoa noizbait ere eta nolabait ere gerarazi behar dela. *Ahari-topekie* ez dela nahikoa. Ekidinezina da beharbada –*Conquislandian* bizi baikara, eta ez *Sautrelandian*–, baina baita gainditu beharra ere. Nola? Bada,

hasteko, ez legoke batere gaizki, nik uste, *strip-tease* apal bana egingo bagenu denok ere, geure giharrak bezainbat geure mitxelinak ere erakutsiz: ikuskizun erakargarria izango ez bada ere, eiki. Aitortuz sinpleki zera, bakarrik ezin dugula, alegia. Axularrek zioen bezala: «“Hi handi, ni handi” hisikaturik egoiteak gibelatzen du(ela) nehork egin nahi duen ontasuna», hots, nor berean tematzea –dela politikoki, dela korporatiboki, dela pertsonalki– akuilu gerta daitekeela zenbaitetan errealitatea lehiakortasunaren bultzadaz azeleratzeko, baina, azken finean, azeleratzea eta azaleratzea oso gauza diferenteak direla: lehena antzu, bigarrena ahaltsu.

«Indarguneak eta ahuleziak»... Ez dakit. Urdu samartu egin izan nau beti AMIA delako matrize horrek, gogoetarako eta gogoeta-elkarketarako tresna analitiko egokia izan daitekeela aitordudan arren (edo «daitordan arren» esan behariko ote nuke, orain modan jartzen ari den bezala?). Harira, baina. Lantegi gaitz bihurria, zinez. Aharien adarrak baino okerragoa. Ia ezinezkoa dirudi. Adostasun minimo batzuetara iristek. Bi mundu ideologiko, gutxienez bi. Gehi bataren zein bestaren inguruko aldakiak, ezin konta ahala ñabarduraz josiak. Eta, kasu, hizkuntzaren politikari buruz ari naiz soil-soilik: gainerako gaiak, nola batzuegan hala besteengan euskararenari beti gaina hartzen diotenak, beude *zazpi*

destatuz urrun, parte txarreko arima erratuak ohiltzeko gure arbasoek zerabilten araoaren arabera. «Ahari» batek –irabazleak– *Euskara XXI* delakoa du Bibliatzat. Beste «ahariak» –galtzai-leak– ez dakit Bibliarik ote duen, baina izatekotan Txillardegiren obrak mereziko luke ohore hori, nire ustez. Aitorkizun-giroan ari naizenez (edo *striptease* giroan, nahiago baduzue: jesu-maria-ta-jose), aitor dizuet honako hau ere: hizkuntza politikari buruz inoiz sentitu dudan zapuztaldirik handiena, jasan dudan deprerik sakonena, *Euskara XXI* dokumentu horrek eragin zidan. «Irabazi dik» –pentsatu nuen hura irakurritakoan– «irabazi dik, goitik beheraino». Nork?... Publikoki ari naiz, eta publikoki nahi dut esan. Joseba Arregik. Duela hogeihogei bost bat urte, bera zen ia pertsona bakarra, euskal intelektualen artean, elebitasun hondarkina, elebitasun *residuala*, elebitasun diglosikoa, defendatzen zuena. Orain, dirudienez, Intelligentsia Nagusiko kide guztiek, dokumentu hori sinatu edo bederen aintzatetsi dutenek. Ikaragarria da, ene irudiko. Seguru aski ez zuen gogoan izango ni orain ari naizen puntu konkretu hau zuen irakasle Larraitx Ariznabarreta Garabietak honako hau zioenean (ikus «Ukazioaren geografia gaurkotua» izeneko artikulua in *Berria*, 12/08/26), baina niri une honetan ezin harirago datorkit:

«Nago zantzu horiek denak gure herriak aspaldi sufritzen duen fribolitate ideologikoak sortutako anemiaren ondorio direla. Kronifikatze bidean den metropoliarekiko sumisioaren arrasto patologikoak. Ukazioak sortutako gaitzaren errotzea».

Zer egin, nolana ere? Zer egin? Betiko galdera hisikatua, eta ez soilik leninista. *Kontenporizatu*, ez dago beste erremediorik. Ene, ze nazka nion gaztetan aditz horri: *kontenporizatu*, ene bada. Baina irabazi dute. Eta altzariak bederen salbatu behar dira. Altxorra salbatuko badugu. Gure hizkuntza, alegia. Hiru urte eskas –eta exkax– egin ditu Jauralaritzan Una-Grande-y-Libreko koalizioak, eta gogora dezagun nolako erabaki estrategikoak hartu dituen. Hizkuntza-egiaztagirien desagerpena, adibidez, honako premisa faltsuan oinarriturik zuribidetua: B eta D erduetan ikasi duten gazteek ez dute beren euskara-gaitasuna frogatu beharrik, badute-eta. Gezur galanta, denok dakigunez. Edota «limurtzearen» aldeko sirena-kantua, Kontsumitzaileen Legeko euskara-eskakizunak ez bete-tzeagatiko isunak baliogabetuz, esate baterako. Edota gizarte-zerbitzu nagusietarako lehiaketa publikoetan euskara-eskakizunok areago euskara-*eskakeoizun* bihurtuz (nahiz eta, horretan, burua lehengoan lepotik, egia esan). «Hiru ele-dun» programa Nafarroan bezala TILERatzeko

beren deliberamenduan, ordea, badirudi atzera egin behar izan dutela, edo gauzatzeko astirik behintzat ez dutela izan. Zer egin, beraz? Ba, garbi dago. Oraingoei –lehendikako berretorriei– markaje etengabea, hizkuntza-politika dagoen baino okerrago egon ez dadin. Hori behinik behin bai. Gutxienez. Eta, agian, zenbait xehetasunetan, akordioa erdietsi ere bai. Badi-ra-eta zenbait puntu komun edo amankomun (gehiago gustatzen zitzaidan *amankomun* hitz zaharra), programetan behintzat: nahiz eta hauteskundeetarako programok kalitate kaxkarreko azpigenero literarioa izan, hori ere hala da. Zein puntu? Bada, esate baterako, Lanbide Heziketa, lan munduko euskara planak, euskararen arnaguneak sendotzea, bikoizketa bultzatzea, hiri-buruei aparteko garrantzia ematea, euskarazko hedabideak sustatzea, irrati eta tokiko telebisten lizentzietarako hizkuntza irizpideak finkatzea, kontsumitzailearen hizkuntza eskubideak bermatzeko araudia gauzatzea, corpora lantzen jarraitzea, administrazioko langileak euskaraz trebatzea... horrelako puntuak.

Hortik aurrera, zer? Ba, zer nahi duzue esatea? Egonarria. Ez naiz nor zuei aholkurik emateko; neure buruari ari natzaio aholkuka, ahulkuka, garbi gera bedi. Egonarria. Pazientzia. Lehen asaldatu egiten nintzen honelatsukoak irakurrita:

«Bide berria, eredu berria asmatu beharra daukagu eta estrategia berri horren muina erakargarritasuna da».

«Testuinguru eleanitzetan, ondoan diren hizkuntzak norberarena baino indartsuagoak direnean, erakargarritasunik ez baldin badago jai daukagu, arauak arau».

«Elebitasunetik dator hizkuntza askatasuna gauzatzeko aukera». (ikus P. Baztarrika in *Berria*, 10/08/01)

«Zer erakargarritasun eta zer erakargarritasun-ondo!» –erantzungo niokeen beharbada–. «Hik uste duk hemengo gehiengo erdaldunaren gehiengoarentzat euskarak inolako presentziarik eta garrantzirik duenik, bitxitasun estereotipatuez aparte? Hik uste duk milimetro bat bera ere aurreratu dugula azken urteotan gehiengo erdaldun horren gehiengoarengan zeharo errota dauden eta hedabide nagusiek etengabe elikatzen dituzten hiru estereotipo hauetatik: euskalduna-erdaraz-gaizki-dakiena = cashero, euskalduna-erdaraz-ongi-dakiena = cashero ilustrao, eta euskalduna-erdaraz-ongi-dakiena-baina-euskaraz-egiten-tematzen-dena = terrorista?... Tira, tira, mesedez!». Hori edo antzeko zerbait erantzungo niokeen beharbada, atzo bertan. Baina gaur ez. Alferrick da. Ez nik bera, ez berak ni, sekula ez dugu elkar konbentzituko. Baina elkarrekin egin

dezakegu lanen bat edo beste, ala? Euskaraz eta euskararen alde. Bada, horrek du munta, azken batean.

Gozagarri zaizkidan arren, noski, Koldo Izagirrenak bezalako danbatekoak. Honako hau, adibidez:

«ARDITUEN GEOMETRIA: ATXIK DIGLOSIARI!

Euskararen menderazioa teorizatua, adostua eta planifikatua daukate gure hainbat irakasle teknikari arduradun eragile kudeatzaile irizlari kargulant politikarik, hitzarmena ez baina itun berritua, hots, ebanjelio gaurkotua den agirian. (...) Dakigun bakarra da euskaldunok inozotzat hartzen gaituztela eta, maluruski, arrazoia eduki dezakete». (K. Izagirre, *Autopsiarako frogak*, 110. or.)

Ba, bai. Arrazoia eduki dezakete. Inozoak gara. Baina eurak irabazle. Eta eurekin batera, euren kontra bezainbat, egin behar dugu lan. Ez dago beste erremediorik. Herri nahasia gurea, mila printzatan ezpaldua. Betidanik, dirudienez. Boterera iritsi orduko –ekonomikora, politikora, ideologikora–, euskalduntasunari uko egitea, horixe izan da arau nagusi klase nagusiengan beti. Gure esku dago aurrerantzean, halere, euskarari irau-naraztea, eta arnasa ematea, hizkuntza handi boteretsu baten edo gehiagoren mende egonik ere. Iruña-Veleiako aspaldiko arbaso haiek egin

zuten bezala, Inperio Erromatarraren beste ezein probintzia mendebalderretan ez bezala: euskaraz ere idatziz (nik ez baitiot ezein txirrindulariri «Lance Armstrong» deituko, analitikarik egin gabe: benetakoak dira ostrakak kontrakorik frogatzen ez den bitartean, *stablishment* unibertsitarioak pertsona bat eta beronen lantalde osoa ezin esan ahaleko harrokeriaz laidoztatu eta defenestratu, eta, hala ere, «ahari» politiko guztiek –nire «harikoek» barne– ostraken inguruan ostrukarena egitea hobetsi duten arren).

Bukatzer a noa nire «gatz ospinduba». Garaia ere bada eta. «Ospinduba» beharbada bai, baina «gatza» Ibarguengoa behintzat ez da izan, ez horixe... Ez al duzue «gatza»ren ixtoria ezagutzen?... Merezi du, ba. *El padrino* iiko eszena *avant la lettre* bat dirudi. Buruhauste franko izan omen zuten Julio de Urquijok eta beronen inguruko zenbait ikerlarik xvii. mendeko *Refranes y sentencias*en ageri den esaldi baten inguruan: «Gatza, gatza, bainan ez Ibarguengoa». Ulertu, ulertzen zen: arkaismorik ez, konplikaziorik ez, hizkuntzaren aldetik. Baina zer esan nahi zuen?, zeri buruz ari zen esaldi hori? Ez jakin, ba. Harik eta norbait –ez naiz gogoratzen nor– konturatu zen arte: xv. mendeko García de Salazarrek bere *Bienandanzas y fortunas* liburuan –Ahaide Nagusien garaiko gerra zitalen kronika gordinean– kontatzen duen gertakari baten oihar-

tzuna behar zuen izan esaldi horrek. «*Sal, sal, pero no la de Ibarguen*». Nonbait, mende bat lehenago, xiv.ean, menia-eskaintza egin omen zieten halako batean oinaztarrek ganboarrei, eta bakea «ospatzeko» oturuntza batera gonbidatu Ibarguengo dorretxera (Aramaion zegoela uste dut, «Aramaio, dabenak ez bemaio»: esaldi eder hau ere *Refranes y Sentenciasen* dator, ba, oker ez banago). Harira, baina. Orritsa aurrera zihoan, sabel asebetekuntzazko giro jatorrean suposatzen da, baina otsein-mirabeek antxumea edo arkumea edo dena delako okela zerbitzatu zutenean, Ibarguengo Nagusiak, derrepente, zera oihukatu omen zuen: «*Sal, sal!*»... Erdara pixka bat ere bazekiten-eta, antza, garai hartako handikiek, bisemian edo polisemian oinarririk hitz-jokoak egiteko beste. Eta bai: «*salieron*», bai horixe: urten eben, atera ziran, jalgi ziren. Hamaika gizon armatu. Aretora sartu eta ganboar bazkaltiar guztiak labankadaz eta ezpatkadaz sakailatu, akabatu, kalitu zituzten... *El padrinoko* eszena ikaragarri horretan bezalatsu, gogoratzen? Bai, seguru gogoratzen zaretela: etxeorraz bateko atikoan nola dauden jangai gutziatsuz beteriko mahai oparo batzuen inguruan bilduta *capo* guztiak, eta nola alde egiten duen aretotik Don Altobellok gaitzitu-plantak eginez, eta nola ixten duen atea kanpotik, eta nola orduan azaltzen den helikoptero bat eta...

Ba, berdin-berdin. Helikopterorik eta metrailadorarik gabe, jakina. Arkadia Zoriontsua izan baita beti gure Herria, bistan da. Herri zoragarria. Zoragarriaren bisemia osoan, noski: ederra bezain zoratzeko modukoa.

Ez nuke, baina, neure berbaldi hau «Hodei Beltzegi» amaitu nahi. Nik ez dakit zer naizen gehiago azken finean, politikoa ala poetikoa. Seguru asko, ez bata eta ez bestea, osorik; bien arteko aleazio nolabaitekoa, hori bai, denok nor geure erara garen bezala. «Ahari-topekie» denok bizi baitugu barnean etengabe, hitz emozionalaren (poetikoaren) eta hitz politikoaren (razionalaren) artekoa, hortik ez gara inor libratzen. Izan ere, arrazoi du J.M. Odriozolak zera dioenean: «Hiztun menderatuak auto-estimua sendoa behar baitu iraungo badu, nortasun etnolinguistikoa sustraitua, kikildurak jotako ataka gaitzetik aterako bada. Bere herri-hizkuntzaren egoeraz ohartaraziko dion gaitasun ideologikoa oinarrizko makulua da hiztun umiliatuarentzat» (op. cit. 55. or.), arrazoi du, baina ez da aski, nire ustez, gaitasun ideologikoa. Bestelakoa ere landu behar da, poetikoa, auto-estimua bakartiaren eta elkartariaren sendagarri. Horrexegatik, hitz poetikoari txanda emanaz bukatu nahi nuke neure jardun luze hau. Esan ditudanen artean, espero dut, izango zen tarteka ideia edo iradokizun baliagarriren bat edo beste. Baina ez jaramon han-

dirik egin, mesedez. Benetan esan nahi nizuena hauxe baitzen, hauxe baita, ondoren irakurriko dizuedana. Duela 17 urte ondu nuen (edo txartu nuen) poema bat da, «Izokinaren Kantua» deritzana, Arrasaten egin zen «Atseginez eta adorez» elkarte haren ospakizun baten kariaz bidali nizuena (Julen Arexolaleibari mintzo), oroituko haiz beharbada... Ba, honela dio «Izokinaren Kantua»⁷:

(ikus II. ERANSKINA)

«Dobla eta Fini» egin beharko, halako batean ere, *horратиño*. *Egingo dau berak bete leku gure hizkuntzak, eragingo dautsogu berak bete leku...* esan nezake, amamaren eta amaren esaldiari koxka bat estutuz. Hain zuzen ere, gure amama Joxepa Goittiko etxekoandrearen eta gure ama Arroxa Goittiko alabaren arteko anekdota polit bat kontatuz amaitu nahi nuke. Gerraren hasieraren bezperaren bezpera zen, 36ko uztailaren 16a, Karmengo Ama Birjina, Markinan Jaiegun *andixe*, dakizuen bezala. Meza Nagusira lagundu omen zuen gure amak berea, eta meza-emaile eta predikari *abade barri* bat gertatu, apaiz gazte bat (izena ere esaten zuen gure amak, baina ez daukat gogoan). Garbizale porrokatua, nonbait.

7.- Hitzaldian ez nuen poema osoa irakurri: III. atala falta zitzaion, beharbada esanguratsuen. Hemengo II. Eranskinan osorik dago.

Sabindarra, erabat. Badakizue: «eliza» behar-
rean «txadon», «meza santu» beharrean «jaupa
done», «apaiz» edo «abade» beharrean «jaupa-
ri», eta abar. Irteerakoan, gure amak bereari
galde: «Ta, ama, zer begitandu jatzu abade barri-
xan sermoie?». Eta amamak erantzun: «Ba...
euskerien lartxo sartu ete dan edo...».

Ez ahal naiz ni neu ere gaurkoan «euskerien
lartxo» sartua izango! Hala espero dut behintzat.
Mila esker denoi zuen arreta adeitsuarengatik.

JOXE AUSTIN ARRIETA UGARTETXEA
2012/X/24ko hitzaldia
2012/XI/22rako (berr)idatzia.

Itsasoaz honaindi

2013ko urtarrilaren 25ean, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin zuen Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2012an hil ziren euskaltzainak omentzeko. Joxe Austin Arrietak bilkura horretan irakurri zuen txosten hau, *Euskera* (2012, 57, 1-2) aldizkarian argitaratu zena.

«Iragarle izan nahi nukeen. Baina iragarlea Itsasoaz mintzo da, eta ez lakuez eta aintzirez. Itsasoaz mintzo ez dena ez da iragarlea, eta ez ditu “mendiak lekuz aldarazten”.

Iragarlea, berriz, egiazko profeta, ez da teorema bidez mintzo, alegia bitartez baizik; eta ez ditu alegia horiek kondatzen, bizitzen eta hezurmamitzen baizik. Iragarlea gugan sekula hil ez den haurrari mintzo zaio».

Haizeaz bestaldetik, 137. or.

ZER DA JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, *Txillardeg*i? Eta «da» diot, eta ez «izan da», bizirik baitirau bere izkribuetan denontzat. Zer da?... «Heren profeta heren filosofo heren olerkari», berak bere artikuluan batean (ikus «Fonfuruak», 1971-VIII-2, *Gertakarien lekuko*, 134. or.) Nietzscheri buruz esandakoa berari ere eratzikiz? Beharbada. Deskribapen zehatz samarra da, hurbilpen egokia, nik uste. Egokiagoa bai behintzat beste hainbat definizio eta etiketa laudatzaile nahiz laidotzaile baino. «Heren profeta heren filosofo heren olerkari», beraz... Hots, Herensugea, gure Lurraren erraietatik sortua. Eta, kasu, Herensugeak, ez gurean ez beste hainbat mitologiatan, ez baitira ezein Munstro, Biziaren suaren ekarle eta

barreatzaile baizik... Dena den, ez dut *laudatiorik* egin nahi: berak ez zukeen gogoko. Ezta erostarik ere: are gutxiago. Ez dakit, egia esan, zer esan, mintzatzeko daukadan denbora apur honetan –hamar minutu, alajaina!–. Esan nezake, adibidez, *uomo universale* bat dela Txillardegi, ez xvi. mendekoa bistan da, Errenazimenduko baikortasun eder hartatik urrun baikaudegure garai ilunotan, baina bai xx. mendearen bigarren erdikadako eta xxi.aren lehen hamarkadako euskal *uomo universal*erik esanguratsuenena, ene irudiko. Hori, ordea, nire iritzia besterik ez da: ados egon zintezkete edo ez. Gustatuko litzaidake frogatzen saiatzea, baina astirik ez noski, eta ahalmenik ere ez seguru aski. Esan nezake... Baina ez. Bera mintza bedi, bera mintza bekigu. Testu batzuk hautatu ditut Txillardegiren itsaso hondargabetik, lagin ñimiño bat, eta horixe nahi nizueke gaurkoan aurkeztu eta apurtxo bat iruzkindu. Ahurkada bat ur besterik ez izan arren –esan bezala–, ezin izango dizuet halere orain irakurri, baina hortxe izango dituzue eskura, Euskaltzaindiaren Plazaberri webgunean, bai beraren testuok, bai nire iruzkinok.

«Heren»tasun horren arabera sailkatu ditut pasarteok, hau da, heren profeta, heren filosofo, heren olerkari. Baina esan gabe doa ia alfer-lana dela testu biziak horrela zatitzea, horrela «vivisekzionatzea». Txillardegi osoa dago heren

bakoitzean (eta ez naiz ari Hirutasun Santua-
ren misterioa azaldu nahian, jainkoek aparta!).
Zera nahi dut adierazi, sinpleki. Idazle grina-
tsurik inor izatekotan, Jose Luis dela horretan
txapeldun. Bere estiloaren ezaugarririk behar-
bada nabariena horixe du: dena ematen duela
denean. Gaia edozein delarik ere, Txillardegia
osoa mintzo zaigu. Baina, musikan bezala, idaz-
kintzan ere tonalitateak daude eta erritmoak. Eta
berak oso ondo zekien hori, berezkotua zeukan
zeharo, aiurriz eta jardueraz. Pianojole bikaina
ere bai baitzen, besteak beste, gure *uomo uni-
versale* antiguatarra. Zein tonalitate nagusi ote
darabilen? Eta zein erritmo?... Musikari buruzko
nire jakinduria Txirritak «Norteko perrokarrila-
ri» buruz zeukana baino «axalagoa» da, eta ez
nekike taxuz erantzuten. Baina nire inpresioa,
nire irudipena, hauxe duzue: mi bemol major
eta *molto vivace*, Chopinen *Polonesan* bezala.
Beste batzuk ere badarabiltza: *maestoso* gutxi,
nik uste, baina *adagio* eder askoak ere baditu...
Zer diozu? Akorde dodekafonikoak ere bai tar-
teka?... Baliteke. Eta nork ez, aizu. Nork ez, bizi
garen herrian bizi garela... Baina tira, huntaz,
hartaz eta horretaz, berak behin eta berriro bere
idazkien bukaeran esan ohi duen bezala, «zuk
duzu hitza, irakurle»...

1.- Heren Profeta

Oharra: jatorrizko zentzuan uler bedi, arren, «profeta» hitza. «Pro-femi», izan ere, «jendaurrean mintzatzea» omen da, berez. Nornahiren aurrean, orokorki, eta agintarien aurrean, partikularki, ausardiaz eta deblauki mintzatzea. Profeta ez da etorkizunaren igarlea, asmatzailea. Hori geroztik erantsi zaion adiera bat da.

1.1.- *Gertarakarien lekuko* (1. alea⁸) (Haranburu, 1985) /
"Alferrei gutun idekia" (1971-II-15)⁹

«Hi ez haiz oraindik "sisteman" sartu. Zorionak! Ez zak ahantz hori lujo bat denik. Ez pentsa gero lujo apala: lujorik haundiena, hain zuzen, denbora eta astia ezin bereztea! (...) Baina irain larriagoa duk, nik uste, DENBORA ALFERRIK HONDATZEA ETA XAHUTZEA. Egunero goizeko hamaiketan ohetik jaikitzen dena, egunero arratsaldeko lauretan oraindik ere mahainetik jaiki ez dena, egunero berriketa aspergarritan denbora pasatzen duena, beharbada oso egokiro mintzo duk "sistemaz". Hik ere ederki egiten duk. Baina ni beldur egiazko langileei, egiazko zanpatuei, astia

8.- Bigarren alea ez zen argitaratu.

9.- Liburuaren izenburua lehenik, etzanez; ondoren, lehen aipuan, argialetxea eta data; eta azkenik, marra zeiharraren eskuinera, artikulua edo atalaren izena gehi data -izanez gero-, kakotx artean.

zer den jakiteko 65 urteak bete behar dituztenei, eta egiazko sozialistei, ez ote hatzaien hi “sistema” bera baino higuingarriago». (128. or.)

Gogoan dut gaztaroan, «estudiante tunante» –marxista-leninista, prefosta– ginenean, hau irakurrita sentitu nuen zarrastada. Orain, berri-rakurtzerakoan, 65 urte horietatik hain hurbil nagoelarik, irribarrea... Ez da oso ohikoa Txillardegiren izkribuetan ironia, nik uste. Normalean, zuzen esaten ditu esan beharrekoak, itzulinguru erretorikorik gabe... Eta hemen ere bai. Baina, oraingoan, adarjotze-ukitu zoragarri eta, beraz, guztiz eraginkor batez.

1.2.- *Gertakarien lekuko* (Haranburu, 1985) /

“Zalantzatan dagoen apaiz horri” (1971-IX-5)

«Hots, zein da gaurko gizadiaren ihesi-nahiaren kakoa? Hemen, iruditzen zaidanez, batera letozke psikologoak eta soziologoak, literatura-joeren aztertzaileak eta zu zerori ere: ez datza kakoa mekanizazio edo automazioan bertan, ez teknikaren aurre-rapenetan, ez klase-banaketan eta ekonomi-desberdintasun lotsagarrietan beretan. Kakoa bizierari SENTIDURIK EZIN AURKITZEAN DATZA. (...)

Ez da egia zure mezua funtsean moral-mezu huts baten mezua denik: estoikoen moralak ez dio zorrik kristauenari gogorrez, ez zorrotzez. Zure mezuaren indarra honetan datza nik uste: gizonak barne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela. (...)

Mintza zaitez zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkizu faltako; Absolutu-egarria ez bait da gaur inoiz baino apalagoa. (...)

Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzei entzungor egiteko kuraia. Izan zaitez ulertu-ezina.

Ala konkordismoak utz, eta uztazu dena.

Bihotzez agur t'erdi». (139. eta 140. orr.)

Duela 42 urte Txillardegia «agnostikoak» esana, alajaina! *Gertakarien lekuko?* Ez hori bakarrik: gertakarien x-izpidun aztertzaile zehatz sakona ere bai. Irakurri ote zuten artikulu hau, garai hartan, apaizgoa trumilka uzten ari ziren euskal intelligentsiako hainbat kidek? Apaizgoa uzten edo, beharbada egokiago esanda, apaizgoa «trukutzen» ari zirenek?... Suposatzen dut baietz. Nik ordurako –gogoratzen naiz– «superatuta» (sic) bide neukan kristautasuna. Horregatik, beharbada, ez nintzen artikulu honetaz gogoratzen. Orain berrirakurri dudan arte. Ez dakit, ba. Gogora datozkit marxismo-leninismo-freudismo-lacanismo-levystraussismorik gotorrenetatik haurtzaroko eta lehen gaztaroko fede katoliko tradizionalera itzultzen ari diren zenbait lagun, eta ez dakit, ba, zer esan...

1.3.- *Antigua 1900* (Kutxa, 1992)

Txillardegiren irakaspide postumo bat, niretzat, liburu hau. Argitaratu zenean, gainbegiratu besterik ez nuen egin egileak berak oparitutako alea. *Opus minus* bat iruditu zitzaidan. Bitxikeria bat edo. Zeinen oker nengoen. Zeinen itsu. Ez konturatzeari ere, horratik, *Antigua* hau dela, hain zuzen ere, *Haizeaz bestaldetiken* betegintzarrea! Fantasia alegorikoaren hezurmamitzea errealitatearen printzipioan!... Ez, *Antigua* hau ez da *ecos de sociedad* bat. Ez da mikro-kuxkuxeria baten ondoriozko kronika arina. Txillardegik berreraiki, berrikusi, berrusaindu, berbizitu egiten du obra honetan bere sorlekua, bere haurtzarora, bere gaztarora, bere eta bere auzotarren historia. Benetakoa intelektualak, zinezko artistak, egin behar duen bezala. Errealitatea atzitu, agertu, hausnartu. Eta, hartara, bere burua antzaldatu, errealitateari men eginez. «Landa-lana» ezinbestekoa du idazleak, lekuan lekuko jendearekin hitz egitea, paper, argazki, artxibo, plano zaharrak arakatzea. Horretan ere, eredu Txillardegik: Kosmosetik Antiguako *Maritxulegiraino* jaitsia, bere une-guneari josia. Nekez irudi hunkigarriagorik, bertaraino joan eta auzoko jauregi eder hori hondeamakinek eraitsi berria dutela egiaztatzean, Jose Luisen ondikozko deitorea baino. Irakaspide ederra, beraz, idazle engaiatuak, konprometituak, arduratsuak, nolakoa behar duen.

«Niretzat bederen, jator aitortzen dizuet, esperentzia harrigarria izan da liburu berezi honen prestakuntza. Behin eta berriz nabaitu baitut, eta azkarki nabaitu, neronen zimentarriak ikutzen nituela; eta nire izate osoa daldarka abiatzen zitzaidala. Hau guztia ez da batere “progrea”; baina gauza ezaguna da ni beti “progre” eta “snob” guztiez trufatu naizela».

(...)

«Zehaztasunari dagokionez, azkenik, bi hitz bakarrik: artxiboetan ehunka ordu pasa arren, zalantza pilo bat daukat oraindik neure barruan. Alde batetik, artxiboetako dokumentu eta plano zaharretan, hütsegina franko aurkitzen delako, are kontraesan ugari ere. Eta bestetik, herri-oroi-men delakoa motxa izanik oso, lekukoen esanak al bait ongienik bildurik ere, askotan egarriak gelditu garelako, eta zalantza gorrian maizegi».
(11. or.)

«Goiko postalean ikusten diren xaletak, Anti-guatik at senditzen dira gaur. Zuhaitzen atzean ikusten den arbelezko teilatua, Maritxulegiri dagokio. Hots, zoritxarrez eraatxia izan den jau-regi eder hori, nork joko ote zuen gaur egun Luga-riztat?». (65. or.)

«Fotoaren ezker aldean, ertzean, eta errepi-deaz haranzko aldean, etxe karratu dotore bat agiri, aiton- seme itxurakoa: horra hor Txillardegizaharra, Gaskue familiarena». (79. or.)

«“Celador de arbitrios” lanposturako deialdia egin zen 1891an. Eta eztabaida piztu zen: “Ezinbestezkoa al da euskaraz jakitea?”.

Hona hemen bozketaren emaitzak:

“Ezinbestezkoa da”: zazpi boto Irastortza anaiak, Elortza (Matia kaleko oñatiarra ote?), Lizariturry, Iraola, Azketa eta Otero. Botoa galdu, beraz.

“Ez da ezinbestezkoa”: hamaika boto. Lasarte, Garat, Nerecán, Urkola, Bermingham, Atxa, Isla, Petrirena, Samaniego... Eta bozketa irabazia, beraz, euskararen beharrezkotasunaren kontra.

La Unión Vascongada aldizkariak bere protesta haizatu zuen: “Si no se rectifica esta conducta –zion erdara batuaz hark ere– contra la cual protestamos con todo respeto, pero con toda energía también, entonces, más o menos tarde, llegará el momento de exclamar con desolada angustia: ‘Euskalerría eta Euskaldunak, il ziran’”.

Ehun urte pasa dira geroztik. Irakurleak du hitza». (93. or.)

2- Heren Filosofo

2.1.-*Huntaz eta hartaz* (Goiztiri, 1965. Berrargitalpena Elkar, 1983) / "Intelektualak eta ekintza-gizonak"

«Guziok ditugu, esan dut ere, gure barrenean nahasturik, oreopitheko bat eta aingeru bat; guziok agertu ohi gera horrengatik batak edo besteak garaiturik, aldika eskuindar eta aldika ezkertar; bainan ez danok arau berean: batzuk usu eskuindar, eta bakanka ezkertar; beste batzuk bestaldera: usu ezkertar, eta bakanka eskuindar. Barka eskuindarrek: bainan nere "teoria" huntan eskuindar agertzea ez da ohore bat». (41. or.)

Liburu hau osorik da perla bat. Euskara Batuaren karta fundazionala, praktikan, kaze-taritza sakonaren eta saiakeraren alorrean. Nire belaunaldikoontzat ezin oinarrizkoagoa. Orduantxe ikusi eta ikasi baikenuen gehient-suenok gure hizkuntza gai zela edozein gaitan sakontzeko, zeinahi pentsamendu moderno mamitzeko. Baina gazteek gaur egun apenas ezagutzen duten. Merezi dute, ba, tamainako plazera. Osorik irakurtzea gomendatzen diet suharki. Hona, gaur, goiko aipamen labur hori besterik ez dakart, guztiz iradokigarria eta inondik ere zaharkitu gabea iruditu baitzait. Ez garel-a, alegia, behin hautu bat egin eta molde horri itsatsiak behin betiko. Bai zera... Gure egune-

roko jokabideak, horiek dira benetan ezker-eskuintasunaren agerri, eta ez talde edo alderdi politiko nahiz ideologia batekiko noizbait jakin bateko atxikimendu gutxi-asko solemneki razionala... Oreopithekoaren eta aingeruaren aleazio bor-borkari aldakor-aldagarri *demoniozkoa*, horra zer garen.

2.2.- *Gertakarien lekuko* (Haranburu, 1985) /

“Eztabaida zahar bat” (1969)

«Pentsamena, eman dezagun, gizonak¹⁰ eka-
rri du; eta gizona, abereen eta tximuen ebolu-
zioak prestatu du. Bizia, era berean, materiaren
eboluzioak prestatu du anitz urteren buruan. Ez
edozein materia-motak: karbonoaren inguruan
sortu dira bizidunak, karbonoak oso gaitasun
bereziak baititu (kimika apur bat dakitenek ongi
konprenitzen naute). Ba dakigu, ordea, karbonoa
eta gainerako elemento guziak (burdina, zufrea,
nitrogenoa, eta Mendeleiev'en laukian agertzen
diran guziak) izarren barruan sortzen dirala,
“nova” eta “supernova” deritzaten izarretan batez
ere. Ez ahal da eboluzio-kate hori, izaki errazeta-

10.- «Gizon» darabil Txillardegik beti urte haietako testuetan. Informatikoki, oso erraza litzateke «bilatu eta ordeztu» tresna-
ren bidez, «gizon» guztiak «gizaki» bihurtzea. Baina iruzurra
litzateke, Txillardegik inola ere onartuko ez lidakeena. Azken
urteotako izkribuetan, berriz, «gizaki» darabil gehienetan,
baina baita «gizon»ari atxikitzen ere, hurrengo aipamenean
bertan ikusiko dugunez.

tik izate zailletara hain zuzen, funtsetik beretik guztiz harrigarria?

Areago. Karbonoaren beraren izatea (guztiz txiripazko, itxuraz) ez ahal da kezka-iturri bat? Karbonorik gabe, edo karbonoa bestelakoa izan ezkeru, Izadi osoa (ez gure mundu hau, gaur, soilki) guztiz itsu izango zitzakean betirako: bizirik gabea, guztiz bere buruan bildua, guztiz gorra, guztiz bere buruarentzako mutua, guztiz hetsia barrurako eta kanporako. Zergatik bestelakoa gertatu? Mentura hutsez?

Asma ditezkean leizazulorik sakonenak sortzen dira nun-nahi.

Erlijioa (gainerako guzia bezelaxe) gizona zantzeko erabilli dute zapaltzailleek betidanik. Zalantzarik ez. Gaurtxe ere gauza bera da. Hori ote da dana, ordea?

Ez nik uste. Misterioaren illunpeak trinkoegi zaizkit». (55. or.)

Nolako umiltasuna, nolako gizatasuna... Gauza bat baita gizabanakoon arimaren hilezkortasunean edota giza kulturek menderik mende zeinek bere erara moldaturiko Jainko Antropomorfo batean ez sinestea, eta beste bat, oso bestelakoa, Misterioari ezikusia eta entzungor egitea. Txillardegik ez dio sekula ixkin egin zalantza guztien Oinarrizko Zalantzari. Aurrez aurre begiratu dio beti, dar-dar sakonean, Kosmosaren eta Kaosaren Enigma Handiari: izarretan, eta bere baitan. Konstante bat

da, Txillardegiren obra osoan barrena, erlijiozko edo filosofia sakonezko kezka, kezka nagusia, ekidin-ezina. *Huntaz eta hartaz* aspaldikotik *Horretaz* artemeingoraino, zirkulua behin eta berriro marratuz baina inoiz itxi gabe, arazoa behin betiko ebatzitzat inoiz eman gabe.

2.3.- *Horretaz: Zazpi saiakera labur.* (Elkar, 2007) /
"Gure galaxian barrena"

«Urtarrilean zerurantz abiatu den *New Horizons* zunda omen da orain artean jaurtiki den azkarrena: 58.000 kilometro orduko abiatzerakoan.

Hori dela-eta, 9 ordu besterik ez du zundak beharko Ilargiaren orbitaraino heltzeko, eta 13 hilabete bakarrik Jupiterreneraino.

Zenbat denbora behar luke, hala ere, Alpha Centaurira joateko?

Berriro zatiketa ximple batez irakurleak egiazta dezakeenez: 63.460 urte behar lituzke. Ziztu bizi horretan 63.460 urte behar izarririk hurbilenera iristeko!

Nekez suma daiteke gizakiak Eguzki Sistematik at irteteko sekula aukerarik izango duenik. Eskala kontua da.

Zinez: Kosmosa handiegia da. Izarrak urrunegi daude.

Eta gizona hutsalegi da, eta igarokorregi espazio horietan mugitzeko». (165 eta 166. orr.)

2.4.- *Horretaz: Zazpi saiakera labur* (Elkar, 2007) /

"Gure galaxietan barrena"

«Supernovak eta Quasarrak dira gure Kosmosaren irudirik aproposena.

Dena lehertzen ari, dena gehiegikeriaz mami-tzen; baina bortizkeria ikaragarrietatik aurrera (eta ez bestela) sortu da, eta sortzen, Karbonoa, Oxigenoa, Nitrogenoa, bizia, eta gu garen kontzientzia ere bai. Giza asmamena aise gainditzeko duten munstrokeria sinesgaitzetatik haratago gaude gu.

Leherketa sail ikaragarri horien ondokoak gara». (217. or.)

Astronomiaz, fisika kuantikoaz, erlatibitateaz, eta zientziaren beste hainbat eta hainbat diziplinaz deus ere ez dakigunok Txillardegirengandik zenbat ikasi dugun ez da hitz bitan esateko modukoa. Euskararenean ez ezik, beste hainbat alorretan ere, zenbat zor diogun haren ahalmen pedagogiko bikainari...

2.5- *Kosmodromo* (Haranburu, 1984) /

"Kosmodromo" (1969)

Txillardegiren ipuin onena deritzot honako honi. Huxley eta Ionesco, biak –gutxienez– datozkit gogora berau berrirakurtzerakoan. Zientzia-fikziorik petoenaren, existentzialismorik

peituenaren, eta absurdoaren teatrorik okituena-
ren aztarrenak nabarmen, nire ustez, nahasketa
lehergarrian.

«Ez ditut jende hauek ulertzen –pentsatu zuen
CPZ-3721 hiritarrak–. Estatistikek erakusten dute-
nez, bidaztien arteko % 97,6-ak, asper-asper eginda
hiltzen dira bidaiari bertan. Gelditzen diren % 2,4
horietan, berriz, denak hiltzen dira, jakina; eta asper-
kuntzaz hiltzen; baina hauek helburutzat hartutako
planetaren gainaldean bederen. Hortaz, hemen ber-
tan nork bere buruaz beste egitea hobe». (69. or.)

(...)

—Gorroto zaituztet –esan zuen orduan CPZ-3721-ek.

—Hobekixe goazik horrela –entzun-erazi zion
taldekoren batek–. Dagoen guztia gorratatu behar
duk, denarekiko goragalea senditu, Kondairan
barrena inoxoek ilaran asmatu dituzten askabide
guztietatik at egon. Zer deritzok honi guztiari?

—Deus ez.

—Txit ongi erantzuna.

—Den-dena mespretxatzen diat osoki, eta ez
diat sinisten ezta neronen sineskaiztasun horretan
ere. Neure burua mespretxatzen diat, baina grina-
rik edo herrarik gabe mespretxatzen.

—Ongi duk. Horretara bada, gurekin etor hai-
teke». (73. or.)

«Manifestariet, binaka sailkaturik, bi ilara eratu
zituzten; kilometrotan barrena ikus zitezkeen bi
ilara luze. Eta gazte eder haiek, bikoteka besarka-
turik, nahiz erotismorik batere gabe, malkorrean
behera amildu zuten beren burua». (74. or.)

2.6.-Bertrand Russellen azken iritziak

(Herri Gogoia, 1970)

Ez, baina! Baldinbaitere... Ezaba dezagun gogoaren ezpainetatik *Kosmodromoren* absurdotasun latzak eragin digun irribarre mikatza. Txillardegi ez da hori. Fikziozko proiektzio da, *ad absurdum* hipotesi bat, hain oker ere. Txillardegi beste honako hau da: giza duintasunaren fededuna, kosta ahala kosta. Gizateriak badu bere burua salbatzeko ahalmena –nahi badu–. Zuzentasunean eta elkartasunean bizitzeko eta, beraz, zorientsu izateko aski den adinako argitasunaren jabe baikara Kosmosaren ausazko nahiz ez-ausazko sorkari herbalok. Herbal bai, baina herbaltasunaren jakitun izaki, hain zuzen ere... Entzun dezagun Bertrand Russell, Txillardegik gehien estimatzen zuen intelektuala, Txillardegik berak (*Eiharalar* izengoitiz) gure hizkuntzara ekarria:

«G.- Zein da biharko gizadiari utzi nahiko zeniokean mezua?

R.-Gizonak sekulan izan ez dituen ahalmenak dituzue zuen eskuetan. Ongi egiteko ala kalte egiteko erabil ditzakezute. Gizon guztiak biltzen dituen familia-loturaz ohartzen bazarete, denak batera zorientsu ala denak batera zoritzarreko izan gaitezkeala ulertzen baduzue, on egiteko era-

biliko dituzue. Herri xehearen miseriaren lepora banaka batzuk bizi ziren garaia joana da. Akabo da. Jendeak ez du aurrerakoan burua makurtuko. Zoriontsu izan nahi baduzu, hauzokoaren zoriona ere onhartu eta aitortu beharko duzu. Hezkera argi batek gizonaren izaera zabalduko duela uste dut eta besteren zorionean ikusiko du naturalki berera iristeko baldintza. Ikuspen batean bezela agertzen zait batzutan, izaki libro erne eta azkarrez osatutako soziedade bat, batek bestea zanpatzen ez duen bat. Gizon ernairen mundu bat, taldeko helburuak beren partikularren gaitetik bultzatzen dituztenak; gizadien adimen eta asmameneren fruitua izan ditekian lan ederrari bultzaka indar guziak batera; gizonen borondatea hau izanez geroz, honelako mundu bat egin diteke. **Eta noizbait badadi, noizbait izatera hel badadi**, mundu loriatsu, diztiranteago, zorionetan asmamenean eta emoziotan ugariago izango da, orain arte ezagutu diren mundu guziak baino». (107. or.)

Oharra: neuk nabarmenduak dira letra lodiz bi baldintza-perpau horiek, bi *badadi* horiek. Izan ere... galdua da gudu hori, Jose Luisek, eta beste euskaltzale bakan batzuek, hori hala gerta ez zedin ahalegin guztiak egin badituzte ere. Galdua, alegia, gure hizkuntzan, potentzialtasuna eta irrealtasuna bereizteko ahalmena. Gaur ia denok –lapurtar, baxenabartar edo xiberutar ez garenok bederen– «noizbait izatera helduko

balitz» esango genuke. Hots, baldintza irrealak erabiliz, berez: gerta daitekeenik, edo gerta litekeenik, sinesten ez dugun hipotesi batez mintzo. Akabo: irentsiak dituzte dagoeneko Balitzek eta Baluk gure ametsak oro. Hilik dautza euskararen hil-herrian Badadi-Baledi eta Badeza-Baleza senide bikiak, esperantzaren mezulariak. Baina Txillardegik ez du etsitzen, jarkitzen zaio, ihardukitzen dio: mundu hori Badatekeela diosku, Badaitekeelako. Eta hala izan dadin borroka bagintez, Badatela... Aditz-altxor aberatsegia ote darabilen, eta arkaikoegia agian, horixe nire susmoa, ondikotz...

3.- Heren Olerkari.

Poeta al da Txillardegi? Hala zeritzon Arestik. Eta ni neu ere ados nago. Ez du poema-libururik argitaratu. Poesia generoaren kanonak eta konbentzioak ez ditu inoiz bete. Eta bere ekoizpen osoa, ikusten ari garenez, prosazkoa du. Zer da, baina, *Haizeaz bestaldetik*? Prosa, noski, erantzungo zait. Bai, halaxe da, poema-lerro labur batzuk tartekaturik, baina prosa, ia erabat. Zer -nolako prosa, ordea?... Hortxe dago auziaren mamia. Nabaria baita, nire ustez, «prosa poetikoa» deitu ohi den genero hibrido horren araberako testu bat dugula begien bistan. Eta?...

Apustu zailak izaten direla beti halakoak. Oso zailak. Zailegiak, apika. Poesia inkontzientearen hizkuntza da, «*l'instance du désir*» (Lacan) metafora eta metonimia bidez gorpuztua eta testura nola edo hala azaleratua –kataklismo gisa normalean, Richter eskalako «goien gradora»–. Bere narratibitate-ildo propioa du poesiak: ildo hautsia gehienbat, ezinbestean, poesia modernoan. Alegoria Handi eta Osoen garaiak –Dante, esate baterako– aspaldi iraganak baitira. Nekez ezkon daiteke gaur egungo poesiaren diskurtsoa diskurtso razional baten hurrenkerarekin; eta nobelak halakoa behar du, bizkarrezur razionala, logikoa...

Dena dela –ur handiegiak baitira hauek paragrafo pare batean egosiak izateko–: nobela alegorikoa izan nahiz alegoria nobelatua izan, poesia ere bada *Haizeaz bestaldetik*, nire ustez. Poesiaren baldintza oinarrizkoena, inportantea, *sine qua non*ena, betetzen duelako: bere inkontzientearekin kontaktuan dihardu etengabe idazleak, eta bere gatazka horren lekuko eta partaide egiten gaitu. Txillardegiren literatura obrarik ederrena da, ene irudiko –saiakeraz aparte–. Zaratustraren oihartzuna antzeman diote zenbaitek. Niri ere hala iruditzen zait zenbait erregistrotan. Baina bestelako batzuk ere baditu. A-topiak (Monastegia, adibidez) *topos* guztiz konkretu eta identifikagarri bihurtzen

zaizkigu narrazioa aurreratu ahala (Soustons, Txubilo, Muitza...). Amets-airezko utopia alegorikoa, apur-apurka edo are bat-batean ere –gure galaxia bazterreko Zulo Beltzen baten barrunbean behera amilarazia bailitzan–, geografia ezagunera, une-gune zehatzetara, eta batez ere haurtzaroko episodio autobiografiko jakinetara antzaldatua ikusten dugu. Stanley Kubrick-en 2001, *Espazioko Odisea bat* ekarri izan dit niri gogora, behin baino gehiagotan, liburu honek. Baita Ridley Scott-en *Blade Runner* ere. Edo F.J. Schaffner-en *Tximinoen planeta*, edo... Luza genezake, beharbada, antzekotasunen zerrenda. Baina horrek ez gintuzke, kasurik onenean, hurbildu baino egingo Txillardegiren obra ezin originalago honetara, hau da, horko protagonistak –lehen pertsonan mintzo zaigun «gorputz astral» moduko horrek– azaltzen digun bidaia *post-iniziatiko* horretara, zeina, definizio ustezko esaldi orokorregi orok duen errore-marjina asumituz, «Itsasotik Itsasora Lakuan¹¹ barna» deitzera ausartuko bainintzateke.

Baina aski bedi aurkezpenez. Irakur ditza-gun zenbait pasarte. Oraingoan ere, beti bezala, «irakurleok baitugu hitza»... Itsasoarekiko eta Labarrekiko Txillardegiren betidaniko liluraren

11.- Erran gabe doa, kasu honetan, «Aintzira» dela «Lakua», ezen ez Gasteizko toponimoa.

adierazgarri, 1969ko erreportaje-artikulu batetikako testu bat, lehenik; eta ondoren, gainerako guztiak, *Haizeaz bestaldetik* liburutik hartuak.

3.1.-*Gertakarien lekuko* (Haranburu, 1985) / "Noruega'ko 'supermarket' batzuk gainbehera" (1969)

«Inoiz ez dut nere burua apalago eta ezteusago ikusi, eta Izadiaren edertasun kupidagabea nabarmenago eta gaitzago. Uxolak ehunka metrotan behera, arkaitz gogorak zut mila metrotako partak osatuz, kresal usaina ezin sarkorrago aidean, itsas-gain geldi hura ispillu baten pareko, ontzi zuribeltz hura fiordo-beso meharrean barrena urruntzen ari, goi eskerga guzietan elurra zuri-zuri; eta isiltasun giro hura urratuz, urrutiko uxolen zurrumurru jarraikian eten gabe ari, anitz antxeta eta kaiuren oihua... Gustave Doré'ren marrazkiek han dukete iturburua; eta horrengatik izan ziran Dante'ren dina». (119. or.)

3.2.- *Haizeaz bestaldetik* (Egilea editore, 1979. Berrargitalpena Elkar, 1988)

«Eta belauniko jarri nintzen; eta adrilu-puska koskor batez nekez idatziz, letra handitan, eta monastegiko norbaitek noizpait irakurriko ote zuen esperantza itsuan, hauxe izkiriatu nuen zazpi harlosa zabalen luzeran:

—Gezurra dio Itsasoak. Lakua mintzo zaigu egiazki». (99. or.)

(...)

«Beherean, berriz, eta inguruko harresi apalaren gainetik ageri, Itsasoa zetzan ilunean; eta isilean olatu urrunak entzuten, bake harrigarrian. Eta beheretik gora hedatzen zen ubanare¹² usaina aditu nuen, kresalarekin nahasia, eta ene hotzikarra hartan sarkorregi. Goiz egurats epeleko bakar-dadean, giza-hats lasaia zirudien uhinen etorrera taigabeak... Bareegia agian.

Eta joandako urteen urruti-min garratza, sekula baino bortizkiago senditu nuen». (101. or.)

(...)

«Han zegoen Itsasoa, ordea, bere hartan: ahazkaitz, ahantzezin... baina ahazkor! Hura garaile sendo bakarra! Giza-patu ilararen lekuko tinko, lekuko iraunkor, lekuko ezinago doilor eta gupidagabe.

Itsasoa: zabalegi, bareegi, baztergabeegi...

Eta haizeaz bestaldetikako mezuaz oroitu nintzen:

—Itsasoari zegokiok Itsasoa. Hire Aberria lakua duk». (177. or.)

(...)

«Eta aldizka kulunkatzen ziren pinu-adaburu-artenetik, eta etengabe zirkulu zabalak eginez zeharkatzen zuten antxeten atzetik, nik, haizeaz bestaldetik etorria naizen bidari honek, egin nezakeen hobenik larriena egin nuen; eta, aurrez aurre, eta lurrik ez ikusteko eran, Itsasora begiratu nuen:

12.- «Ubanare» *alga* omen da. Begiratu behar izan dut *Orotari-koan*.

—Hi bai! —esan nuen ozenki—. Hi haiz berbera!
Hi gotor bakarra!

Ene Aberria... Itsasoa da!». (224. or.)

4.- Osorik euskarari

Hemen bai ez dagoela «Herenik». Osotasuna baizik. Txillardegiren euskalduntasunari, euskara-zaletasunari, euskara-maitasunari, euskararekiko duen psiko-somatizazioari buruz, izan ere, zer demontre esango dut nik, ba, zuek denok nik bezalaxe edo nik baino hobeto dagoeneko ez dakizuenik? «Osorik euskarari» deitu diot atal honi, neurri batean behintzat, aurreko atalaren izenburuarekin —«Heren olerkari»— errimatzen duelako. Baina, errimak errima, errimeago arri-
ma nadin muinera. «Osorik euskarari emana», esan nahi dut. Hain zuzen ere, iruditzen zait, Txillardegiri buruz ari garela, gure hizkuntzak dituen atzizki morfematiko eta lexematiko guztiak erantsi beharko genizkiokeela «euskara» erroari eta Txillardegiren beraren izena ardatz harturik egundoko sintagmarik trinkoenak eratu. *Euskararen Txillardegi, Euskararentzako Txillardegi, Euskarazko Txillardegi, Euskaratiko Txillardegi, Euskararainoko Txillardegi...* gure deklinabide-kasu guztiak esleituz alegia... baita «*Euskararengainokoa*» ere halakorik balego...

Eta *-kor*, eta *-zale*, eta *-dun*, eta *-zain*, eta gainerako lexemekin ere berdin jokatu. Jose Luis Alvarez Enparantza, joan deneko berrogeita hamar urte honetan, gure *buditelérik* handiena izan baita, nire iritziz. *Buditelé*, bai, txekieraz esanda (informazio hau berau ere berari zor, noski): «argitzaile» esan nahi omen du Pragako hizkuntzan hitz horrek, eta hala deitzen omen zitzaien xix. mendearen bukaeran eta xx.aren hasieran hango hizkuntzalari, irakasle, artista, eragile eta idazle abertzale arduratsuei, alemaniar hizkuntza itzaltsu eta larderiatsuari aurre eginez, beren nazio-hizkuntza txirotua eta baztertua berpiztu zutenei. «Argitzailea», beraz, Txillardegik... Bai corpusean bai estatusean. Bai ikerkuntzan, bai hedapenean. Bizi osoa euskarari emana.

Baina stop. Lehen ere esan dut: *laudatiorik* ez. Artobero usainezko *ohoratoriak* ez zituen Jose Luisek batere gogoko. Beraz, hemen ere, bera mintza ledin nahi nuke. Beraren testu batzuk hautatu, beroriek denon hausnargai aurkeztu, eta kitto. Hainbeste dira, ordea, hainbeste... Ezinezkoa da. Neurri hauetako lan batean behintzat. Ikastaro oso bat beharko genuke Txillardegik euskarari eginiko ekarpen teoriko eta praktikoko guztiak gaingiroki –eta «gaingiroki» bakarrik– begiztatzen hasteko. Orri-barreneko oharretan paratu ditut, halere, hementxe,

hiruzpalau testu, Txillardegiren bai «Iker»¹³

13.- Hona hemen, adibidez, azentuari buruzko bere ondorio ezaunenetariko bat:

«Euskal azentuaren kokagune nagusia (+2) da. Azentua eskuin aldera eramateko joera berria (Ekialdeko zenbait euskalkitan, eta erdal-euskaldun-berriengan oso azkarra), interferentzia hutsa da. Eta gaztelaniaz nagusi den (-2) eta frantsesez (-1) egiteko joera, erabat dago euskal (+2) kokagunearekin kontrajarria» (*Lingua navarrorum*, EGIN-Euskal Gaiak, 1996) (24. or.).

Ahoska dezagun «Txillárdegì», beraz, eta ez «Txillardégi» paroxitonoa, edo «Txillardegí» oxitonoa, non eta xiberutarrak ez garen.

Eta hona hemen, halaber, Txillardegiren iker-eremu zabalaren adierazgarri –hizkuntzalaritza konparatibo-genealogista ere landu baitu, euskararen sinkronia segmental eta supra-segmentala eta testuen bidezko diakronia historikoa ez ezik–, beste zertzelada bakan batzuk, ikertzaile orok informazioa ematerakoan eduki beharreko jakinduria handiaren eta hipotesiak formulatzerakoan atxiki beharreko jarrera apalaren eredu, nire ustez:

«Oraino beste arazo bat: ergatiboa galdu egin daitekeela hizkuntza batean mendeetan barrena. Pamir-ko “burushaski” bitxiak berriki galdu bide du ergatiboa». (ibidem, 34. or.) (Zaldiero artistak baluke bazkarik hemen bere biñeta zorrotz atseginetarako...)

«Deiktikoetan agertzen diren leherkari horiek (-gau, -gora) ez dituzte gainerako /g/ kontsonanteen bidea segitzen; ez dira gor baten eskuinean gortzen. (...) Ez dira mota bereko leherkariak. Ez ote ziren, jatorrian, bederen, leherkari glotalai-reak edo izan? Nire iradokizun ausart bat besterik ez da.

“Balizko olea” da hau oraingoz; eta okerra baldin bada, “enea da falta, eta ez euskararena” (...) baina honelako zerbait egia balitz, Bouda-ri, Lafon-i eta Dumézil-i eman beharko genieke arrazoia; eta gure senitartekoak Kaukasian bilatu.

Mitxelenak ere “proto-vasco”arentzat postulatu zituen leherkari (eta ez leherkariak bakarrik, korrelazio orokorra postulatu baitzuen) fortis vs. lenis zerrenda bikuna, baitsirik gertatuko litzateke; eta leherkarien alorrean kaukasiar

izariaren bai «Jagon»¹⁴ izariaren agergarri, gero norberak, astirik duenean, irakurri ahal izan

hizkuntzen hirukuntasun eskuarretik hurbil genuke euskara. (...) Nik neuk, egia aitortzeko, eta frogabide zientifikorik oraindik esku-artean ez badaukagu ere, Kaukaso aldera begiratuko nuke. Edo inguru haietara bederen.

Pamir eskualdeko burushaski-erak ere, arreta osoa merezi luke; puntu fonologiko askotan euskararen senide estu agertzen delako.

Euskaraz bezala, Kaukasoko hizkuntza askotan, azentu nagusia ezkerreko lehenengo silabetan agertzen bide da: lehenengoan maiz (georgiera, archi, bats, txetxeniera); eta beste batzutan ezkerretik bigarrenean: tsaxur-eran, adibidez.

Azkeneko datu batzuen arabera, bestalde (ikus M. Haspelmath, *Language* 72 (1996), 127. or.), zenbait hizkuntza kaukasikotan, doinu-azentua dagoela dirudi; Hualdek eta Gamindek Bizkaiko itsasertzean aurkitu dutenaren antzekoa.

Iradokizunak besterik ez dira oraingoz. Noski!». (Ibidem, 74. eta 75. orr.)

14.- Txillardegi soziolinguistaren laburpen moduko ondorio hauek, nire ustez, balio guztiz argigarria eta erabakigarria dute, metodologia erabat zientifiko batean funtsaturik daudelako:

«Hamaika erabilpen-neurketa eta kalkulaketa zehatzen ondorioz, puntu hauek azpimarratu behar dira:

1. Ez dela egia euskaldun elebidunen axolakabekeriarengatik euskara galtzen denik, eta erdara hautatzen. Euskaldun elebidunen leialtasuna (euskararekiko, jakina) oso handia da, oro har. Euskararen erabilpen murriztaren gakoa elebidunen ahulezian bilatzea, errakuntza borobila da.
2. Erdara mintzabide hautatzen den asko eta askotan, solaskide erdaldun elebatarren ezintasunean bilatu behar da hautuaren giltzarria. Problema nagusia ez dira euskaldunak, erdaldun elebatarren beharketa etengabea baizik.
3. Esan ohi denaren aurka berriro ere, kale-neurketetan aurkitu dugun erabilpen-tasa enpirikoa, bertago egoten dela,

ditzan. Eta noan harira. Proposamen bat egin nahi bainuke. Eta proposamen hori Euskaltzaindiari, Unibertsitateari, Jaurlaritzari, Aldundiari, Udalarari eta legokiekeen instantzia guztiei helarazi: «Txillardegi Katedra» edo «Txillardegi Ikerkuntza Gunea» edo, sinpleki, «Txillardegi Enea» deituko litzatekeen proiektu bat diseinatzea, antolatzea, egikaritzea. Ikerketa-lerro bat,

normalean, ezaguera maila horretan lor genezakeen maximotik, minimotik baino.

4. Euskararen kontzientzia eta euskara berreskuratzeko tirria, askoz ere azkarragoak direla euskaldunak gutxiengoa diren herrietan (Lizarran, eman dezagun; edo Laudion, Portugaleten), euskaldunak gehiengoa diren herrietan baino.

5.- Bai euskararekiko leialtasunaren neurketetan, eta bai gizarterakuntza-tasarenean ere, elebidunak euskaltzaleago agertzen direla (praxi linguistikoan), uste genuena baino. Eta, bide beretik, nabarmen dago anisotropiaren hazkundera, eta hau “trinkotzearen” adierazlea da (Txepetxen hizkera erabiltzekotan)». (Ibidem, 98. eta 99. orr.)

Argigarria oso, halaber, erdarazko bere aspaldiko artikulubatean, Txillardegik egindako diagnostiko hotz hau:

«Al existir en una comunidad una mayoría de monolingües y sólo una minoría de bilingües, con una lengua común (situación que ha conocido Irlanda, con pérdida prácticamente ineluctable del gaélico), la resistencia objetiva, que proviene siempre de los monolingües, es elemento claramente preponderante frente a los factores voluntaristas de la minoría bilingüe. Más aún cuando la lengua minoritaria carece de función social. Es así evidente que, salvo inversión radical de los factores existentes, la lengua vasca está condenada a muerte y puede derrumbarse bruscamente en cualquier momento». (ikus Euskararen aldeko borrokan, Elkar, 2004) (243. eta 244. orr.)

Unibertsitateko edo beste zeinahi esparrutako ikertzaile gazteentzako edo ez hain gazteentzako beka-sistema batez hornitua. Eta leku bat, leku fisiko bat, interpretazio-zentro moduko bat, Txillardegiren obrak, eta berak jorratutako gaien inguruko oinarrizko bibliografia, bilduko lituzkeena, liburu nahiz aldizkari nahiz web nahiz bideo nahiz audio, zeinahi euskarritan. Datu-ba-se egoki batean oinarriturik, noski: oso baliagarria da, alde horretatik, dudarik gabe, 2005. urtean, Euskaltzaindiak eta EHUK elkarlanean argitaratzen duten IKER bildumaren 17. ale hartan, «Txillardegiri omenaldia» deiturikoan, agerituen zerrenda sailkatua, Pilartxo Etxeberriak eta Hendrike Knörr zenak egina eta gaur egun Euskaltzaindiaren webgunean edonoren esku dagoena (1.000 itemetik gora: bada zerbait!). Hauxe duzue, beraz, nire proposamena. Hori bai, mesede pertsonal bat eskatu nahi nizueke: ez enkargatu niri, faborez, proiektu horren «bideragarritasun-txostena» erredaktatzea, zehaztaper tekniko-ekonomikoekin-eta, ze... desastre hutsa bainaiz horrelakoetarako. Baina badira, horixe badirela, euskaltzaleon munduan, makina bat pertsona prestu eta jakintsu, lan hori primeran egin lezaketanak. Merezi luke Txillardegik, gure Euskara-Zain Osoak. Omenaldirik onena horixe irudituko litzaioke, ziur naiz: euskararen meatzearan berak zabalduetako edo sakonduetako zaine-

tan, galerietan, aurrera segitzeko animobideak eta baliabideak eskaintzea euskaltzale gazteei. Bego esana, beraz.

Eta beste zerbait ere nahi nuke erantsi. Ahoskatu berri dudan «Euskara-Zain Osoa» izen-sintagma entzunez, denok igarriko zenioten bezala (barka: «denok igarria diokezuen bezala»... Txillardegik ez zukeen sekula «denok igarriko zenioten bezala» esango: «Hori espainolaren kalko hutsa duk!», kargu hartuko zidakeen berehala). Itzulingerurik ez, baina; esan dezadan garbi. Uste dut badela garaia Euskaltzaindiak Txillardegirekin eta *viceversa* izandako tirabira mingarrien zauria behar bezala sendatu eta ixteko. «Hala egin badezagu, ohoratu GIRATE» (Etxeparek esana, eta Larresoro-Txillardegik, nola ez, jaso). Ez dago zertan ezer gesaldu, epeldu, txepeldu. Errealitatea eztikeriazko onkotekeriaz estaltzea ere ez da soluzioa, badakit. Gertakariak oroitzeko eskubidea dugu denok –denon oroimena mugatua eta betiere selektiboa dela apalki aitortuz ahal dela–, eta denok dugu nork geure iritziari eusteko eskubide osoa. Baina hori gainditu beharra dago. Arazo honetan, eta beste hainbatetan. Txillardegi sumendi bat zen, bada-kigu. *Uomo universale* gehientsuenak bezalaxe. Jenioak jeniotsuak izan ohi baitira. Eta jenio ez garenok ere bai, ala ez?... Gurea bezalako herri «ixurbatu» batean (Gandiagaren hitza erabiliz),

harritzekoa al da denok ere, maiz nahiz bakan, erupziotan lehertzea? «Bekatutik libre dago-keenak jaurti beza lehen harria» esango nuke, agnostiko bati esaldi sakratu bat aipatzea zilegi badakio. Zer egin gure hizkuntzaren hondamendiaren aurrean, mendetan barrena pairatu dugun higadura gupidagabearen eta frankismo garaiko itoaldi sistematikoan ia azken hatsa ere ebatsi zigunaren aurrean?... Gure hizkuntzaren hilhurren-egoerak ez al zuen behar erupziorik, inarrosaldirik, astindurik? Gure gurgil kirrinkaridun orgako idi erasanok (euskaldun guzti-guztiok, alegia) ez al genuen behar Jose Luis bezalako itaurlarien eupadarik, bultzadarik, eta are akuiladarik ere? Ni baiezkoan nago, ba. Eta zinez diot: «Benedika fortuna» (hau ere Etxepare dixit) Jose Luis bezalako Herensugeek gure etsimenduzko lozorrotik iratzarri gintuztelako. Beharrik. Bereiz ditzagun, otoi, zahia eta bihia, lastoa eta garaua. «Asmoz eta Jakitez», hain zuzen ere.

Eta, pena handiz, hurrengo pasarteok ere bazter batera laga beharko, orain irakurri gabetanik. Ez, ez da –ez dut uste behinik behin– «autozentsura» ez kontzientea ez inkontzientea, denbora-mugaren tiraniaren ondorio baizik. Ez daukat astirik Txillardegiren ideia politikoen –*stricto sensu*– *maremagnumean* barneratzeko. Baina hementxe dituzue, nahi duzuenean ira-

kurgai, idatzi ditudan oharrok. Txillardegiren erhiari baino, Txillardegiren erhi horrek seinalatzten duen ilargiari begira daude idatziak, asmoz behintzat. Lastima zera, 1978. urtean, Bergarako Biltzarrean, kontsonanteen ondorengo «h-aspirazio» guztiak ezabatzea erabaki zenuenez geroztik, o Euskaltzaindia estimatu horrek, erhiak oro eritu zaizkigula. Ondikotz. Hatz-hamar, hatz-ahapar, behatz-topa, bihurtu zaizkigu, helas, erhi lirainok. Baina inork ez du horren errurik. Edo ez, barka: denok dugu erru hainbanako bana. Nire ustez, erran gabe doa...

Zeren, besteak beste, esadazue, arren... Galdu al du batere gaurkotasunik, zuen iritziz, Txillardegik 1958. urtean –pentsa noiz!–, bere *Batasunerako bidea* izeneko txosten kartsu bezain arrazoitsu hartan, zioenak, honako honek?:

«Eta ez esan gure arteko istillu auek baño gogorragorik ere badugula. Guziok dakigu gure etsaiak zein diran. Baña geure arteko batasuna lortzen ez ba dugu, etsairik izan edo ez izan, kalte besterik ez diogu geronek emango gure euskerara aulduari, eta alperrik izango da gure etsaiak aipatzea. Esaera zaharrak ez digu esaten: “etsaiak erasotzen dituzten erreñuak oro, deseginak izango dira”; ondorengo au baizik: “beren buruaren aurka zatitutako erreinuak oro, deseginak izango dira”. Eta auxe bai egia: gaixtoago da geronen anarkia segurik, gure etsaiak baño. Euskaldunak

galdu ba gera, geure anarkiarengatik galdu gera batik bat, geure burua defenditzeko ere ezpaikera bat». (*Euskararen aldeko borrokan*, 26. or.)

Ni neu behintzat ados nago hor zioenarekin, hor dioenarekin. Oro har. Ohartxo bat erantsita, dena den, umore seriozko tonalitatean. «Anarkia?»... Alajaina! Bera zen-eta anarkistarik handiena! Gozoa zen, ba, inoren aginduak-eta txintxo-txintxo eta txintik atera gabe betetzeko! Lana bai, erruz, inork baino gehiago. Eta lan diziplinatua, koordinatua: Euskaltzaindiak ondo baino hobeto daki horren berri¹⁵; eta beste zenbait esparrutan ezagutu dugunok ere bai. Izan ere, anarkia, benetakoa –hots, ez eskuindarrek eta komunistek «saldu» digutena–, ez baita axolagabekeria eta apetakeria, elkar-lankidetasun arduratsua baizik. Baina zerbaitek talka egiten bazuen berak zeukan ipar-orratzarekin, akabo: *sursum cordari* ere ez ziokeen ametorik

15.- Esate baterako, Fonologiatik eta Gramatikatik zuzenean hizkuntzaren izari suprasegmentala aztertzeraz igaroz (ikus *Euskal azentuaz*, 1984). Beste era batera esanda, Joskeraren ikerkuntza, Euskaltzaindiak lan-banaketa hala erabakia zuelako, beste euskaltzain batzuen esku utziz –gogoratu, adibidez, Patxi Goenagaren alor honetako lan bikaina: erlatiboari buruzko beronen «murrizgarri» versus «ez-murrizgarri» bereizketa zinez argigarriari, tamalez, idazle eta hizlari askok jaramonik egiten ez dioten arren–. Diziplinatua, beraz, erabat, Txillardegi, lan-eginkizunei dagozkien xehetasun guztietan.

emango... Tira, ez noa gehiago luzatzera. Oso ondo ulertzen nauzue. Politika –zentzu *her-tsi-an*– orain arte aipatu nahi izan ez badut ere. Baina aipatu beharko, jakina. Bestela Txillardegi iraintzea, eta irentzea, bailitzateke... Gainera, isiltzeak ere ez baitu balio. Badakizue: nire modukook, hitz egiten badugu hitz egiten dugulako, eta isiltzen bagara isiltzen garelako, emaitza beti berdina, edo berdintsua. Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak berak ere esan berri duen bezala, duela hamar egun (barka, otoi, nire frantses-ahoskera traketsa): «*Le comportement des hommes politiques englobant d'ordinaire non seulement leurs actions ou discours, mais également, dans certaines circonstances, leurs omissions ou silences, qui peuvent équivaloir à des prises de position et être aussi parlants que toute action de soutien déclaré*». Ederki eman ere. «Umorezko tonalitatea» agindu dizuet paragrafo honen hasieran, baina ez dakit eutsi ahal izango diodan. Ezin serioagoa baita afera. Europako justizia-instantzia gorenak Espainiako Gobernuaren gezurrak –bere aldetik batere iker-tu gabe, errealitatearekin bat ote datozen den mendrenik ere kontrastatu gabe– ontzat ematea eta, gainera, horrela zuribidetzea. Gezurra baita, hemen umeez ere badakiten bezala, ANVK urtero uztail aldera antolatzen duen (edo antolatzen zuen) Albertia Egunean, ETAko militanteak

omentzen direnik: Legutioko Batailan, gure historiako «Gallipoli» ikaragarri hartan, faxistek hil zituzten ANV-Euzko Indarreko 300 gudari bipil haiek, ardiak otsoen artera bezala batere artilleria-babesik gabe erasora bidaliak, horietxek dira omenduak. Eta erdi-gezurra baita –beraz, gezur osoa– urtero, otsail aldera, Torturaren aurkako Egunaren kariatz egiten den manifestazioan, ETAKO *militant décedé* (sic) bat omentzen denik, Joxe Arregi baita omendua, ETAKO militantea bai, baina nola eraila?... Eta 2005eko azaroaren 30ean, ANV/EAE Alderdiaren sorreraren 75. urteurrena ospatuz, ezker abertzale osoak San Andres Eguneko Manifestua oroitu izana ETAREN apologia omen... Oraingoan ere arrazoi Etxahunek esanak eta Txillardegik jasoak: «Lekhü eijerren haitatzez, kargüdünak gora, gü taula petan GIRATEKE, jende gradoz aphala!» (ez dut uste nire xiberutar ahoskera frantseseko baina hobea denik: arra-barka, otoi). Errespeturik ez, egiaren errespeturik ez. Zure nazioak estaturik ez badu, estatu baten jabe ez bada, ez zara ezer. Eta zure hizkuntza, eta zure historia, eta zure idiosinkrasia osoa, hutsaren hurrengo. Hori da egia, egia zinezkoa, Txillardegik hamaika aldiz ohartarazia¹⁶.

16.- Lagin-aipu bakar bat, milaka posibleren artean, aspaldikoa («1963-ko Agorriko»), «Demisioa Euskaltzaindian» izeneko gutunetik hartua: «Batek edo bestek, "politikarik ez dagoen gertaeretan" politika sumatzen dudala esango du. Halere

Orain bai. Bukatzera noa. Eta berehalaxe jabetuko zarete egin nahi dudan lotura razional-emozionalaren azpian dagoen zergatiaz. Askotan esan izan dut, baita publikoki ere, nik hiru «aita espiritual» izan ditudala neure bizitzan. Bata, biologikoki ere gure (hots, nire) benetako aita zena, Lorentxo Arrieta, arrantzalea, bate-re eskolatu gabea, ozta-ozta sinatzen zekiena: abertzalea goitik beheraino, hori bai, euskaldun hutsa, euskaltzale porrokatua, eta ANVko guda-ria¹⁷. Bigarrena, Joan Mari Lekuona, irakasle

gauza jakina da, beren zerbitzuko erresuma bat bederen ez duten hizkuntzak oro, hiltzen dirala; eta dutenak, azkartzen eta hedatzen. (...) Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren molde edo barne-egiturarengatik, politikazko askatasun ala menpetasunarengatik baizik». (*Euskararen aldeko borrokan*, 52. or.)

- 17.- Argeles-eko eta Gurs-eko kontzentrazio-esparruetako sufrikarioez patxadaz mintzatu ohi zitzaigun bazkalondoetako tertulietan: lastaira zikinen gainean egin ohi zituzten zorri-lasterketei buruz, adibidez (bai, buruetako zorriak hartu eta trabesak egiten omen zituzten gudari derrotatu baina ez guztiz umoregabetu haiek: «Baietz nireak hireari irabazi» eta abar). Gosea, hotza, lazeria, zikinkeria, mukurukeria, zaindari senegaldarren zigorkadak... horiek guztiak gogoratu bai, baina ez zuten bere onetik ateratzen. Burlak bai, ordea. Umiliazioak. Errespetu faltak. *Légioneko* koronel hura joan zitzaienekoak, preseski. Behin eta berriro kontatzen zigun, eta beti sumintzen zen kontatzerakoan. «*Ahora tenéis la gran oportunidad de poder seguir luchando contra el fascismo*» esan omen zien, *Légionean* izena ematera limurtu nahian, espainiera perfektuan («Nik baino hobeto egiten zian erderaz alu arék», esaten zuen gure aita zenak). 1939-40ko negua, II. Mundu Gerra jadanik hasia.

ahaztezina, «aita espiritualala» zehazki esanda ere bai, Seminarioko garaian, euskararen eta bereziki euskal literaturaren galaxia zabaldu ziguna bere hainbat ikasleri, eta zeinari esker nagoen gaur hemen zuen aurrean mintzatzen, berak gomendatu baininduen euskaltzain urgazletarako 1996an (nire alferkeria barkaezinaz bilera bakar batera ere etorri ez naizen arren urte hauetan guztietan, ene...). Eta hirugarrena, Txillardegi. Orain arte esan dizuedanaren eta irakurri didazuenaren ostean, ez dut uste haren ganako lotura berezi horren nondik norakoan gehiago aztarrikatu beharra dudarik. *Dobla eta Fini* egitearren, beraz, bizipen bat kontatu nahi nizueke. Anekdotak baino areago, bizipena. Hara: 2011ko abenduaren 3an ikusi nuen Jose Luis bizirik azken aldikotz. Euskararen Egunean, hain zuzen. Izan ere, eguerdi aldera, Bulebarreko Mintzodromotik atera eta zera pentsatu nuen neure artean: «Zein ote zatekeen gure hizkuntzaren paraderoa, Jose Luis izan ez balitz? Ikusi behar diat, ba...». Banekien ordurako erabat

Frantzia eta Ingalaterra demokratikoek, beren *non-intervention* politika doilorraren bidez Franco-Hitler-Mussoliniri hemengo gerra irabazten lagundu ondoren, orain *rojo-separatista* eta *republicanoen* laguntza behar, nonbait. Esan gabe doa zein izan zen Gurseko gudari derrotatu baina inola ere ez duingabetu haien erantzuna. Batzuek, tartean gure aita zenak, ihes egitea lortu zuten behintzat. Baina hori beste historia bat da... «Beste historia bat»? Ez, betiko historia bera, nik uste.

erretiratua zegoela eta osasunez gero eta okerrago, maiz galdetzen bainien etxekoei beraren berri. Baina, egun hartan, Lasala plazara inguratu eta atari pareraino iritsita, telefonoz halaxe esan nion Joneri, Jose Luisen emazteari: «Aizu, barruak agintzen dit ikusi egin behar dudala. Igo al naiteke?». Eta Jonek, beti bezain mazal, erantzun: «Ba, barruak agintzen badizu, zatoz gora. Baina bost minutu bakarrik, e, gehiago ezin du-eta». Halaxe igo nintzen. Eta sekula damutuko ez, ezta ahaztuko ere. Doi-doi mintza zitekeen, baina hantxe topatu nuen Txillardegia, ohean agonduta, dotore asko, txabusina sorbalda gainean, burua tente, eta irribarrez. «Jaiki ere egin nahi zuen-eta, zu zentozelako, hau marka!», Jonek errieta amultsuan. Nik desenkusa, noski: «Barkatu, ez nizuen endredurik eragin nahi». Eta Jose Luisek orduan, ahots-hari mehe batez: «Ez duk endredua... Ohorea duk...». Beno. Topikoa da. Baina topiko guztiek bezalaxe, honek ere badaukake bere barruan egiaren parte bat. Euskaldunok zeinen zomorroak garen emozionalki, alegia. Euskaldun gizonezkook behintzat; badi-rudi populazioaren beste erdia, emakumeok, gu baino naturalxeagoak zaretela, eskerrak. Badakizue, negar egin behar denean, negar egin behar dela, eta barre egin behar denean, barre, eta abar. Nahiz eta, beharbada, ez pentsa: zuek ere baliteke gure zomorrotasunaz apur bat kutsatu-

rik egotea, zeren, orain gogoratzen ari naizenez, zazpi urtez sekulakoak eta bi pairatu ondoren –gerra, kartzela, heriotza–kondena gauzatu ote ziotenezko etengabeko larritasun latza eta...–, Elissalt andereak, etxera orduko, bere seme Koldo Mitxelenari esan omen ziona ere... ez baita, ez denez, sentimendu-gainezkaduraren, -isurkortasunaren, -efusibitatearen ezein gailur («Zer? Etorri al zera?»). Nik orduan Txillardegiri esan behar nion: «Ohorea? Ohorea diok? Hi hainbeste urtetan Maisu eta Lagun eduki izana, hori bai dela ohorea, niretzat eta edonorentzat». Baina ez nion esan, noski. Hitz beste egin nuen berehala. Eta gaitz erdi, agian, ze bestela a ze atarramentua malkoei ezin eutsi izan banie... Bideabar esanda, eta ahaztu baino lehen: bost minutu baino gehiago egon nintzen, ordu-laurden bat-edo gutxienez, «konpainia noblean», *Huntaz eta hartaz* mintzo, beti bezala. Eta beti jarraituko dudana bezala, Txillardegiren ahots-hari mehe horrek beti durundiatuko baitu nire baitan oihartzun biziberrituz. Beti mintzatuko zaio nire baitan –eta zurean, eta denonean– sekula hil ez den haurrari Txillardegiren Itsasoa.

Aita zenari, hil zenean, eskaini nion poemaren zati bat errezitatuz, eta berau Txillardegiri ere eskainiz, bukatu nahi nuke. Poema erdi-collage modukoa zen, ahapaldiak –batzuk neurtuak, beste batzuk libreak– «Kapitan pilotu»

herri-kantaren perpausekin tartekatzen zituena.
Honela dio amaiera aldera:

Wikingo zaharren antzo
–amets egin nuen–

ontzi sukartuan
itsas zabalera

bazindoazela

zure maite ixilaren
musu errauskorra
ezpain zurbiletan
gozo dastatzera.

*«Horra adirazi dana
horra adirazi dana
nolakua zan kapitana
ka
pi
ta
na»*

«Dana»?... Ez. Dena ezin. Nola adieraz Itsasoa
ahurkada bat hitzez...

Josu Muguruzari bezala, hiri ere bizi-ikur hau
opa diat, Jose Luis, anti-hilartitz gisa:

GUGAN DIRAKIK
GUGAN DIRAUKEK¹⁸.

Mila esker denoi zuen arreta adeitsuarengatik.

JOXE AUSTIN ARRIETA UGARTETXEA
Euskaltzain urgazlea.
2013ko urtarrilaren 25a.

18.- Edo, badakik: aditz trinkoak oso zailak omen direla-eta... «Zailak? ba, ikas ditzagun!», esan hidaan, gogoratzen nauk, baina... Ez dagoela «bainarik»?... Zer?... Bai, bazakiat ez hengoela konforme. «Dirakik» beharrean, «irakiten duk» jarri nue-nean, eta «diraukek» beharrean, «iraunen duk»... *Txorakeria* iruditu zitzaian, baina... Ene, hirekin ari nauk-eta!... Non hago, zein larretan?... Nire barnekoenean, noski... Segi dezagun beraz honela, Jose Luis. *Huntaz eta hartaz* mintzo. Baita *Horretaz* ere. Oroimen bizia baino quasar ahaltsuagorik ez baitago. Bihar arte, Maisu. Sarri artio, Lagun.

I Eranskina

J.M. Odriozolaren *Estatu etnozidaren kontra* liburuaren inguruan: letra beltzez eta kakotx artean liburutik atera-tako pasarteak. Grisez, berriz, pasarte horien harira Joxe Austin Arrietak eginiko komentarioak.

1. Zer galtzen dugu hizkuntza bat galtzean?

«Hizkuntza bakoitzari dagokio mundua ikus-
teko leiho berezi bat. Hizkuntza bakoitza baita
gizaki bakoitzaren sozializazio-leihoa. Hizkun-
tzak galtzea, hiltzea, mundu-ikuskerara berezien
leihoak ixtea da. Ordezkaezinak diren begiradak
itsutzea» (35. or.)

Oso ederra, oso poetikoa, baina...
nori axola zaio leiho gorabehera bat?
Leihoa aldatu eta kitto, ezta? Egurrez-
koaren ordeztan, poliuretanozkoa jarri.
Ez al gara, ba, sugeak bezalatsukoak,
azala aldatu arren beti suge?

Gizakia, giza espeziea, lau gauzaren-
gatik borrokatzen da, nik dakidala:
janariarengatik, territorioarengatik,
sexuarengatik eta hierarkiarengatik.
Hizkuntzarengatik –hizkuntza jakin

batengatiko– borroka ez dago gure genoman irarrita, ala bai?

2.- Diferentea izatearen esanahia

«Hizkuntza identitate diferentea garatzeko, besteak beste, gaitasun ideologikoa eta psikologikoa ondu beharko ditu mendeko hiztunak. Baina, tamalez, euskaldunok tarteko, hizkuntza minorizatuko hiztunak erraietaraino barnera-tua dauka honako ezaugarri makur hau: alegia, hizkuntzaren egoera deitoragarria dela medio, egoera menderatu horretan dagoenak ez lukeela hizkuntza akituaren aldeko borroka ideologiko-rik plazaratu behar. Ahulegia dela borroka ideologikoari ekiteko. Hobe dela, nolabait esateko, “analfabetismo ideologikoari” dagozkion baldintzetara errenditzea». (54. or.)

Makurra, edo zuhurra? Mitxelena handiak ez al zuen esan, ba, «euskara arma ahulegia dela» borroka sozio-politiko-kultural-ideologikoetarako? Hobe dugula, alegia, apal-apal eustea, eta ahal duguntxoa egitea? Garen gutxiengo izanda, nola inposatuko diogu, bada, gehiengoari geure hizkuntza? Hori, jarrera hori, «analfabetismo ideologikoa» al da? «Ideologia menderatzai-

leari men egitea» ala zentzuzko zuhurtziaz jokatzea?

3.- Gutxiengoa: baina, zeren gutxiengo?

«Nor denak estatuaren babes dauka, gutxiengo nazionalen batean jaio dena ez da nor». (93. or.)

«Estatu-hizkuntza izatea da benetan aintzat hartua izateko irizpide politiko eta juridiko bakarra. Hortik kanpora ez dago bizitzarik. Hortik kanpora mamuak daude». (111. or.)

Zortziko txikian nahiz handian, neurri eta doinu librean, J.M.

4.- Hizkuntza aniztasuna edo inperatibo etikoa

«David Crystalen ustez oinarrizko bost arrazoi nagusi daude hizkuntza galèraren aurka eta, horrenbestez, hizkuntza aniztasunaren alde egoteko: a) lehenik, aniztasuna behar dugulako, b) bigarrenik, hizkuntzei esker adierazten dugulako geure identitatea, c) hirugarrenik, hizkuntzak direlako historiaren gordailu, d) laugarrenik, giza jakintza osoa hizkuntza guztien emaitza delako, e) eta, azkenik, hizkuntzak berez direlako interesgarriak». (127. or.)

Ba, nahiko hotz uzten nau arrazoi-zerrenda honek. Zuri, ordea, oso gustatu zaizula dirudi.

«Aniztasunaren aldeko bost argudio, zein baino zein sinesgarriagoak. Nolabait ere, pragmatismo eta utilitarismo zekenaren aurkako argudio-harresiak dira. Munduko kultura guztien gizatasun eta nortasun modu guztiak aterpetzeko bermea. Aniztasunaren ñabardura, ñabarduren sotiltasuna, txikitasunaren edertasuna, ahalbideratzen du aniztasun linguistikoaren aukerak. Besterik da, ordea, errealitate soziolinguistikoaren zoria gaurko munduan: homogeneizazioaren aldeko berdinkeria ukatzailea dugu jaun eta jabe». (128. or.)

Oso polita, oso poetikoa hau ere. Baina zoaz, zuk zeuk orrialde horretako oin-oharretan aipatzen dituzun Kanadako indioengana eta Guatemalako maiengana kontu poetiko horiekin: seme-alabei ez diete beren hizkuntza erakusten, eskolako hezierra elebidunaren aurka daude... Bizi beharrak, biziraun beharrak, beren hizkuntza baztertzeraz bultzatzen ditu, «hobe beharrez», ala ez? Gure euskaltzasuna urdaila ongi beteriko komunitate espiritualki frustratubaten apeta/nahikeria artistiko-historikoa ez ote, J.M.?

5.- Hitzun menderatuaren soslaia

«Hizkuntz leialtasuna.

Egoera soziolinguistiko arras asimetrikoetan koherente izan nahi duenak hizkuntza militante izan beharra dauka». (170. or.)

Diozu, eta aurreraxeago:

«Ogi gogorrari hagin zorrotza dagokiola pentsatu behar du hizkuntza leialtasunaren hautua egin duen ekintzaileak. Leialtasunak sakrifizio hori duela ordain. Ekimen linguistikoa ezin duela utzi hitzun hegemonikoaren esku. Edonola ere, gorriak ikusiko ditu hizkuntza militanteak ogi gogor horri kosk egiterakoan, gogorraren gogorraz barrenak inarrosiko baitzaizkio maiz. Jaso duen heziketaren aurkako portaera izango baita hitzun hegemonikoaren aurrean men ez egitea, egoskorkerian tematzea». (171. or.)

Horixe gogorra... nik behintzat ez dut indarririk izaten horrelako praxiari ekin eta eusteko. Dendetan-eta, hori bai, ahalik eta irribarrerik proaktiboen eta asertiboenaz beti galdetzen dut: «Euskaraz badakizu?... ¿Sabes euskera?». Emaitzak..., en fin, goizaldeko ordu txikiak arte egon gintezke kasuistika guztia kasurik kasu iruzkintzen denok geure esperientziak kontatzen hasiz

gero... Gaitzidurazko «No» biribile-
tik, harridurazko «No»tik paseaz, «Sí,
*pero hace años que salí de la ikastola,
y casi se me ha olvidado*» abailgarrian
barrena, noizean behingo «bai, noski»
arnasa-emaileraino. Beraz, nik neuk
behintzat, nahiago izaten dut etxe-zu-
loan geure hizkuntza gaixoarengatik
negar egin, eta liburu ederren bat ira-
kurri (euskaraz, noski)... Beharbada,
denok ados jarriko bagina, Euskaldun
Harrotasunaren Egun bat-edo anto-
latuko bagenu... agian, orduan, egun
horretan milaka euskaldun hauxe bera
egiten ari garela jakinik, geure hizkun-
tzari irribarrez baina irmoki eusten...
Zer irudituko litzaizuke horrelako
egun bat antolatzea?

6.- Hizkuntza heriotzaren zergatiak

Kapitulu honetatik bi galdera, bi,
«pisu astunekoak» biak ere, bakarra-
rekin ezin etsita...

1) «Zergatik hiltzen dira hizkuntzak? Zerk hil-
tzen ditu? Berezko heriotzak dira ala kausa-
andana jakin baten ondoriozkoak?». (221. or.)

diozunez, ba omen dago

«oinarri-oinarrizko arrazoi sakon eta komun bat, bakarra eta unibertsala, arazoaren muin-muinean datzana»:

Estatua, «Gehiengoan parlamentu-sistemari esker bortxaren monopolioa eta kapital sinbolikoaren legitimazioa eskutik dauzkan» erakunde gorena.

Ados zaude Txillardegik duela pare bat hilabete *Berrian* egin zioten elkarriketa hartan esandakoarekin: «Estatuarekin euskara beharbada ez da salbatuko; Estaturik gabe, ziur ezetz»? Ados bazaude, edo ez bazaude, azalduko al diguzu zergatik...? (ahalik eta laburren, hori bai).

7.- Nolako egoerak, halako panoramak

Hemen, kostata, gai bakarra berexi dizut, nola edo hala. Hauxe diozu:

«Hizkuntza bakar baten balio emozionala eta kognitiboa ezin dira estatistiken zenbaki hotzetan neurtu. Hizkuntza, ezer izatekotan, sentimenduen eta giza emozioen barne-muinetan mamitzen den sorkaria da». (263. or.)

Eta Josep R. Llobera-ren honako aipua ere badakarzu, 611. oin-oharrean:

«Baina erabat ziur nago, herri batek hizkuntza jakin bati dion loturari erantzun nahi zaionean, azalpen erabat instrumentalak ez direla nahikoa eta egin beharko litzaiokeela aipamen herri horrek bere hizkuntzarekiko duen lotura emozionalari». (Josep R. Llobera)

Korrika datorkit gogora. Niri ere malkoak begietaratu zitzaizkidan, nire etxe ohiaren aldamentetik pasatu nintzenean lekukoa eskuan nuela; balkoian aita zena ikusi uste izan nuen, handik niri eupadaka eta oihuka bizitza osoan *leitmotiv* izan dudana harako bere esaldi hura errepikatzen zidala (liburu guztietan aipatzen dudana, pelma bat naiz): «Nun goz? Espainian, ala?», anai-arrebok erdaraz sumatzen gintuenean (ia beti, alegia) aldarrikatzen ziguna... «Non gaude? Espainian, ala?». Eta nik berari erantzuten niola, mentalki, eta malkoak begietan noski: «Ba, bai, aita, ANVko gudarri zaharra, mekaben judas, badirudi baietz, Espainian gozela, oraindik...». Lotura emozionala, katarsi emozionala, J.M.: Zer garrantzia du? Zenbateraino izan daiteke itxaropenerako berme, edo pizgarri?

8.- Mendeko hizkuntzen aldeko politikak

1) «Aldeak alde, zilegi bekit galdera bat. Alegia, munduko hizkuntza minorizatuen panorama horretan euskaldunok ere ez ote daukagu hil ala biziko marra kritiko hori gehienbat igarota? (...) Mugarri kritiko horren zein aldetan ote gaude funts-funtsean euskaldunok? «Funts-funtsean» azpimarratu nahi dut. Zeren eta alde bateko zein besteko ezaugarriak baitauzka herri euskaldunaren erradiografiak. Euskararen hil kanpaiak jo zituztenak kritikatu izan ditu gure arteko zenbait, aurreikuspenak bete ez direlako, eta iragarle-lanetan huts egin zutelako. Baina, nago, haien (Wilhelm von Humboldt, Victor Hugo, Arrese-Beitia...) iragarpenak gutako askok uste baino oinarri sendoagoa zutela. Funtsezko joeraren baitan luzarora gerta zitekeenaz mintzo ziren, eta ez nuke esango nik begirada kamutsa zutenik».

No comment... Mesedez, J.M., emaguzu morfina pixka bat... Min hau jasanezina da.

2) Berandu konturatzen omen gara hiztun-herri txikituok akulturazioaren pipiak jota gaudela. Eta orduan azterketa soziolinguistikoak egiteari ekiten omen diogu heriosuhar, frenetikoki. Mapak, inkestak, plangintzak...

«Klaus Zimmermann-en iritziz, ordea, informazio eta xehetasun soziolinguistiko guztien azpitik eta gainera honako galdera xume honi erantzun behar litzaioke lehen-lehenik:

Zer da hizkuntza?».

3) «Hiztun-herri akituen adore eta jarrera ideologiko eta emozional ausartik gabe, soberan daude plangintza tekniko guztiak. Bihotzik gabeko buru teknokratak ez dauka zereginik mintzaira zapalduen aldeko ekimenetan. Arrazoimenak sentimenduaren beroa behar du, eta sentimenduak, berriz, arrazoimenaren argitasuna».

Bai, konforme, poetak behar ditugu, eta filosofoak, baina baita hizkuntz teknikariak ere, ala?...

4) «Zertan da, halakorik egotekotan, hizkuntza baten erreproduzio sozialak eskatzen duen gutxieneko "masa kritikoa"? (...) Bizi nahiaren eta ezin biziaren arteko masa kritikoa tenka ehuneko hogeita hamarraren inguruan bide dago: hots, belaunaldien arteko transmisio naturalaren %30 inguruan». (312. or.)

Gu non gaude? Zein ehunekotan?

5) Pauso horiek guztiak egin ditugu edo saiatu ditugu guk ere: eskola, irratia, telebista, zinemagintza, egunkaria, literatura idatzia («elite txiki

baten ardura», eskerrik asko oroitarazteagatik, J.M.: bagenekien, baina onartu nahi ez, idazleok munduko gizajenderik harroenetakoen ezpalekoak baikara), itzulpengintza, antzerkigintza, paisaia linguistikoa, Internet bera ere bai... dena jorratzen duzu, gure mugarri guztiak, hitzak berak adierazten duen bezala muga-harriak, mugatuak alegia. Denei ere beren balioa eman ez, balio erlatiboa, jakina. Eta, halako batean, danbateko hau:

«Euskara batuaren edo estandarraren erronkari aurre egin ahala, hezkuntza sisteman ikusi genuen euskaltzale askok euskararen salbazioa. Hori zen gutako askoren itxaropena. Berdinik gabeko herri mugimendua loratu zen herriz herri: nazionalismo kulturalaren lorpen paregabea. Gurean ez ezik, hemendik kanpo ere hezkuntza-sisteman ezarri izan dira itxaropenaren zutabe nagusiak. Usteak, ordea, oraingoan ere erdia ustela izan du, ondoren ikusi ahal izango dugun bezala.

Harako hark zuzen zioen modura, odolustutako hiztun-herriari gerta dakiokeen gauzarik txarrena zera omen: alegia, hizkuntza eskola-hizkuntza huts eta soil bihurtzea. Gizarteratzeko ahalmenik ez duen hizkuntzaren patu gaiztoa.

Hortxe hasi ziren, hain zuzen, gure arteko euskaltzale askoren arrangurak, eta hortxe hasten dira beren hizkuntza oinperatua zutik jarri nahi duten ekintzaileen zaputzak». (330. or.)

Zertan gabilta, bada? «*Apaga y vámonos*»?... Letonia, Suomi, Flandria izateko aukerarik ba al dugu? Edo Katalunia? Ala Irlanda, Eskozia, Britainia alderago al gaude?

2) «Inoiz baino gehiago dago euskararen etorkizuna geure esku, herritarron borondate eta jarreraren esku, herritarren askatasunaren esku, alegia. Erosoagoa da, hizkuntza kontuetan ere, nahikerietan murgildu eta norberaren ezintasunen zama eta erantzukizuna hirugarren baten bizkar jartzea, eta norberaren ajeei bizkarra erakustea. Baina esan dezagun, gure iritzian behinik behin, gaurkotasun eta egokitasun erabatekoak dituela Joxanton Artzek maisuki idatzitako hark: “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”». (*Euskara XXI. Itun berri baterantz*, 45. or.)

Nik beti pentsatu izan dut Artzeren aforismo artxifamatu hori herren dagoela,

zerbait falta zaiola, aldaketa itxuraz txiki baina ganoraz oso inportantea, bukaera aldera. Nik honela esango nuke: «(...) dakitenek hitz egiterik ez dutelako baizik». EZIN dutelako, alegia. Izan ere, ezintasun hori baita lege nagusi, nire ustez. Okupazio-hizkuntza ez baita, dagoeneko, kanpo-espazioaren okupazio-hizkuntza soilik: gure harreman-sarearen zati handi baten eta gure baitako gogo-muinaren beraren okupazio-hizkuntza ere bada, izan. Eta hortxe gure ezin-biziaren, gure ezin-egonaren, gure ezin-izana-ren Dorraoko sindromea. Ezin gorrotatu jadanik geure buruaren parte bat dena –hizkuntza arrotz barneratua– barrutik txikituta gauzkan eskizofrenia galopante hau larriagotu nahi ez badugu. Baina, era berean, *laissez faire-laissez passer* etsigarri etsiari amorerik EZIN eman, etikoki, existentzialki, inondik inora. Nahi ez dugulako. Palarazi zaigun alienazioa onartzen ez dugulako. Inperatibo kategoriko ezinbestekoa dugulako geure euskalduntasunari eustea, eta berreskuratzea. Atseginez eta adorez. Adorez eta atseginez. HORI DA BIDEA... esaten aski erraza, egiten... ez hainbeste, noski.

Oso bestelakoa da *xxi. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak* erredaktatu dituen Euskararen Aholku Batzordearen iritzia:

«Euskarak ezin ditu bere baitan bildu identitate-adskripzio bakar bateko hiztunak. Horrela gertatuko balitz, ez ghettora, baizik eta sektaraino daraman muga gaindituko genuke, euskarari eta gizarte kohesioari atzerakorik gabeko kaltea eraginez. Inolako identitate-euskarririk onartu beharko balitzaio euskarari, identitate ireki eta integratzaile bat eraikitzeke baliagarria dena izango litzateke soil-soilik onargarri eta, beraz, partaidetza kontzientzia sendotzeko balio duena; hau da, norberaren adskripzio askeari uko egitea eskatzen ez duen identitate-sistema eta, beraz, bere barnean adskripzio guztiak maila berean biltzeko gaidena, euskal herritar huts sentitzetik espainiar huts sentitzerainoko adskripzio guztiak naturaltasunez onartzen dituen». (*xxi. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*, Euskararen Kultura Batzordea, 56. or.)

Sektarismoa al da norberaren hizkuntza norberaren nortasun indibidual

eta kolektiboaren ezinbesteko ezin baztertuzko ezin ukatuzko dimentsio eratzailera, konstituyentea, dela aldarrikatzea eta koherenteki defendatzea?...

II
Eranskina

IZOKINAREN KANTUA

I

Ur gazi-gozozko
padura lohitsutan
nahi gaituzte itoarazi,
nebarrebok...

Itsas bazterreko ihitzetan
sakailaturik
sakabanaturik
hondakin erkinok...

ur axal geldozko
arnas larri etsituan
–ibai kutsatuek helbiderik ez–
itsasoa ala hil
beste ostertzik ez
gure zakatz dardartientzat.

–«Lehen, amuarrainak ginenean
ez ginen honen errukarri»–
diote erostaka leinuko goibelek
samaldaka
nola datozen ikusiz
gure padura geltokira
sats-isurkinetatik ihesi
ezkailu gazteak
paduraren patu hitsera
itomenaren labe mortura:
urlo-zoko bakanetan iraun
ala
geure buruaz beste
itsasora

–«Lehen, amuarrainak ginenean...»
Ez gara, ordea!
Ezin jadanik izan gaitzke!
indar anker batek
aspaldi bilakarazi baikintuen

IZOKIN

amuarrain-ohiok.

II

Oroit.
Oroit eta berpiz.
Oroit, berpiz, berbizi:
goazen gorantz, nebarrebok!
Ur latsetan jauzi!
Ur latzetan errime!
Ausart eta azkar
goazen gorantz, izokinok!

Han daude-eta
han zeuden eta han
behar dute izan:

sortibaiaren iturburuan
oroitzapen omen den geroaren
bazter amultsuak:
langarrak doi-doi eztituak
pentze mardulen zorabiotan
urki lerdenen laztanetan
bedats-adatsetako hatsa
den haize librearen
aberria.

Jaramonik ez
ezponda ertzetako
sahats negartiei!
(«Euskera ibaia da
erdera den itsasora
daramana»)

Jaramonik ez
Bidasoaren alde banatako
gilbor-gizen kirtenen
amu pozoinduei!
(«Bien sûr, la Cophradie
du saumon del salmón
la Cofradía, por cierto»)

Gu izokinak gara:
ez ahaztu.

Ibaizabalak Nerbioi
bihurtu bazaizkigu ere.

Eta Aturri-Errobi
hilobi-hurren.

Ur mehea
datorren arren.

Oria ez delarik
Ur-ola.
Harroa ere ez
Debaldekoa.
Eta Artibai xume

Eta Urdaibai xehe.

GU IZOKINAK hala ere!

sortibaian gorako bidazti
ur lasterraren gaindi
ur lasterraren kontra

erdararen gazitik
euskararen gozora

etengabeko erromes
minbizitik biziminera.

Aurrera nebarrebok!
Errun dezagun etorkizuna
iturburuan!
Bihur dezagun itzulbide
geure arnasbidea

III

Orduan bai.

Itoitz erraldoirik gabeko
urlats jostarietan
barreiatu ahal izango gara
Urederraren gaindi
Argan barrena
Ebro zaharreraino

eta berritzuli
eta berrosatu
eta berritsasoratu ere
izokin lerdnok.

Ez baikara itsasoaren beldur

ez hango olagarroen
ez inongo marrazoen
eta gu menderatuko gaituen
sare pelagikorik ez da.

Sortibaiaren ikurra

baitaramagu beti
bekokian fierki
gozotan bezalatsu
gazitan ere arnaska
arnaska eta igerika...

eta sortibaiaren gomuta

gure burmuin bipilen
plegu ezkutueta bizirik...

Ezagutzen baitugu uneoro

geure baitarako itzulbidea.

Ez baikara nondik-nora gabeko

ontzi hordiak.

Ezta itsaslapur deslai basatiak ere:

hortz-haginetan daramagun
ezpatak ez du inoiz inoren
mihirik trenkatu.

Urruneko irletaraino ere

joan gaitezke noiznahi

adorez eta atseginez

apalki bezain harroki

zeren gu izokin baikara

ur gazi-gozotara

izotz-galdatara

zailduak:

ez inoren morroi

ez inoren nagusi

geure buruaren
jabe baizik

jabekizun den
Izokin Herriko
kide garaitezinok,
nebarrebok...

JOXE AUSTIN ARRIETA
Graffiti en Ganbara, 1995

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
Joxe Azurmendi	
DORRAOAREN INGURUAN, BERRIRO ETA BEHIN	19
ITSASOAZ HONAINDI	71
I ERANSKINA	113
II ERANSKINA	131

Liburu hau,
BERRIRO ETA BEHIN
EUSKARA DELA ETA
TXILLARDEGI GOGOAN

Iruñeko Donibane auzoko Irrintzi dorretik euskarazko
uhinak aurrenekoz haizatu eta 25 urtera
amaitu zuten diseinatzen, konposatzen eta maketatzen
Abandoko MONTI DISEINU GRAFIKOA atelierrean
eta horretarako Chris Burkek 1990ean
digitalki sortutako CELESTE familia tipografikoa erabili zuten.



Aurkeztu dizugun liburuaren eduki, itxura edo inprimaketari
buruzko iritzia guri helarazi nahi izanez gero,
bidal iezaguzu. Zinez eskertuko dizugu.

TXALAPARTA ARGITALETXEA E.M.L.

San Isidro, 35-1A

78. Posta-kutxa

31300 TAFALLA

Nafarroa

Tel. 948 703934

Faxa 948 704072

txalaparta@txalaparta.com

www.txalaparta.com